



Gaintzara begira



Karlos Argiñanorekin
puntuka

Etorkinentzako
ikastaroa
Gurutze Gorrian

Elkarriren sinadura
bilketa kanpaina



EKEL

t a b e r n a

San Inazio 17

Beasain

Garagardo festa

Martxoak

12

13

14





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



Lan bertikalak S.L.

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea **ATAUN**

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)
124 posta-kutxa ORDIZIA
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
Posta elektronikoa:
goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Ion Muñoa, Iñaki Ugalde, Juanxo Unanua, Ana Mari Telleria, Zorion Insausti eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.100 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Irizarrek eta Castro suak hitzarmen teknologikoa sinatu dute:

Autobus urbanoen sektorean murgildu da Irizar kooperatiba

Otsailaren 19an Ormaiztegiko Irizar kooperatibak eta Castro suak enpresak teknologia hitzarmena sinatu zuten. Ibilbideertain eta luzeko autobus sektorean enpresa liderra da Irizar. Castro suak, berriz, autobus urbanoen sektorean. Espainiar Estatuan esaterako, Irizarrek bere sektorean merkatuaren %45 hartzen du eta Castro suak, berriz, hiri garraioaren %52a.

Irizarrek Castro suaren C.S.40 City autobus urbanoen modeloa egiteko teknologia bereganatu du. Honela, Irizarrek, Espainiatik kanpoko merkatuetan autobus modeloa komertzializatu ahal izango du datozen hamar urtetan. Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan, Txekian eta Israelen, lau urteetakoa izango da akordioa.

Castro suak bere aldetik, Txinan, Indian eta Hego Amerikan beraien teknologia ez zabaltzeko konpromisoa hartu du.

Bi enpresen arteko akordioarekin etorkizunari aurre hartu eta etorkizunean lan-kidetzan jarraitzeko asmoa azaldu dute.

Akordioa 2004. urtean zehar hasiko da gauzatzen. Irizarren Txinako lantokian hasiko dira prototipoak, teknologia formakuntza eta lehenengo autobusak egiten. Txinako merkatuak garraio publikoaren arloan urtean 10.000 unitate gainditzeko ditu eta Europako teknologia berrien eskaera handia da. Irizarrek Txinan daromatzen 9 urteetako esperientziak produktu berri honen sarrera erraztuko duelakoan daude akordioaren bultzatzaileak.

Irizarrek dituen gainerako lantokietan, pixkanaka zabalduko du produktu berria.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

CAFek eta Beasaingo Ikastolak hitzarmena sinatu dute: CAFeko langileek %20ko beherapena izango dute Andramendi Haurtzandegian

CAF enpresak eta Beasaingo Andramendi Ikastolak sinatutako hitzarmenari esker, CAFeko langileentzat kuotak %20 merkeago izango dira Andramendiko haurtzaindegian. Akordio horri esker haurtzaindegi erabiltzaileek, urtean 174 eta 468 euroko aurrezkoa izango dute, erabiltzen dituzten zerbitzuen arabera.

Eusko Jaurlaritzak 2002-2003ko ikasturtean baimendu eta kontzertatu zuen Andramendiko haurtzaindegia, Beasainen erdialdean, Urbialde enparantzan dagoena. "Andramendiren proiektuak helburutzat lan-baldintzak eta familia-bizimodua elkarri uztartzeko modua egitea du. Horregatik, posible da



haurtzaindegi zerbitzuetan egun erdiko erabilera zein egun osokoa", zehaztu dute Andramendikoek.

Andramendiren haurtzaindegia Euskal Herriko Ikastolen Elkarteke hezkuntza-proiektuan txertatua da-

go, eta "bere eginkizuntzat dauka umeak hizkuntza eta kultura eredu euskaldun eta euskaltzalean murgiltzea".

Zehaztasun gehiagorekin izateko, telefono bat jarri du Andramendik interesatuentzat: 943-885312.

Goiekiko Inkubategia: zure enpresa-idea argitzeko laguntza

Goiekiko Inkubategiaren zereginen artean dago enpresa egitasmo bat jorratu nahi duten pertsonen informazioa eta aholkua ematea da. Horretarako, urtero, formazio ikastaro bat antolatzen du enpresa jardura berriei bultzada bat emateko helburuarekin.

Buruz buruko elkarriketa batean bakoitzak izan dezakeen enpresa ekimenarekin zerikusirik duten alderdi guztiak azaldu, eta ibilbide indibidualizatu bat prestatuko du Goiekiko Inkubategiak, proiektua aurrera ateratzeko. Esate baterako,

martxoaren 5ean hasiko den ikastaroa aukeretako bat da. Jarraian dituzue ikastaroaren xehetasunak.

Enpresa sortze eta kudeaketa ikastaroa

Autoenplegua lortzeko negozio baten sorreraren bidea ikasteko jakin mina duten pertsona guztiei zuzendutako ikastaroa da. Batez ere, Goierriin martxan jartzeko negozio proiektu bat garatzea pentsatuta daukaten horientzako.

Goiekin emango da ikastaroa, martxoaren 5ean ha-

sita, hilabetez, astelehenetik ostiralera, goizeko 9,30etatik 1,30etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943161831 telefono zenbakira deitu (Maialen-Maiderr).

Ikastaroan 11 arlo landuko dira: autoenplegutza sarrera; merkatu azterketa; marketingari sarrera; ekonomi-finantza arloa; forma juridikoak eta laguntzak; zerga ordainketak; lanezko modulua; ingurugiro modulua; 'Cuadro de mando'; ideien bideragarritasun plana; eta erakunde finantzarioekin negoziaketa.

'Ate irekien jardunaldiak'

Martxoaren 4an Mondragon Unibertsitateko Goierriko Kanpusean, arratsaldeko 5,30etan, 'Ate Irekien jardunaldia' izango da, guraso gazte eta gaiarekiko interesa duen edonorentzat. Jardunaldi horretan, Mondragon Unibertsitateak hurrengo ikasturtean Goierriin emango dituen ingeniarietako ikasketen berri zehatza emango da, eta aldi berean, ikasketa horiek burutzeko prestatu diren gela, laborategia eta bestelako instalakuntzak ikusi ahal izango dira.

Jardunaldien antolaketa egokia egiteko, aurrez, 943880062 telefono zenbakira deitu eta (Estitxu Urkiaz galdetu, 110 luzapenean) izena ematea eskertuko lukete Goierriko Kanpusekoek.

Toberaren Batzar orokorra

Otsailaren 11n Batzar orokorra egin zuen Zegama, Segura eta Zeraingo Tobera Musika Eskolak, Zeraingo Kultur etxean. 3 urteetarako zehaztutako erronkak neurri onean betetzen ari direla esan zuen Iker Gomez de Segura zuzendariak, hau da, kanpo harremanari eta komunikazioari, ekintza egutegiari eta barne antolaketa eta finantziario gestioari dagozkion erronkak. 26 jendaurreko ekintza egin zituen iaz Tobera Musika Eskolak. 2003-04 ikasturteko memoria eta aurrekontua ere aurkeztu ziren batzarrean. Zuzendaritza Batzordea berrietzeko hauteskundeak emaitzak emanez amaitu zuten batzarra. Honela, Mariaje Telleria, Pili Ezeiza eta Laura Callejas izango dira Zuzendaritza Batzordeko ordezkari berriak.



Eguneko bi zentro berri Beasainen eta Lazkaon

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak Beasainen eta Lazkaon bi Eguneko Zentro berri irekitzeko erabakia hartu du.

Legorretako Etxezarreta papelera

La Salvadora S.A. eta Legorretako Etxezarreta S.A. paperfabrikek bat egin eta Paperalia enpresa sortu dute. Aurreikuspenen arabera, 100.000 tona paper ekoiztu eta 25 milioi euroko inbertsioak egiteko aukera edukiko dute.

Euskal Y proiektuari ezetza

Otsailaren 19an, Euskal Y proiektuari ezetza agertzeko asmoz, protesta ekintza egin zuten Pikuondo, Beasaingo etxe okupatukoek. "Goierri bertan egiten diharduten zundaketa txikitzaile horien aurrean kontzentrazioa bat eta lanak atzeratzeko zundaketek lortutako proben kaxak bota genituen ekintza hauek salatze asmoz. Honela, AHTRI gure desadostasuna agertuz, ezezkoa adierazteko aukera dugula esan", diote Pikuondotik.

Agenda 21: logotipo lehiaketa

Goieki, Goierriko garapen agentziak, Tokiko Agenda 21a Goierriko herritarren artean identifika eta sinbolizatu dadin logotipo baten diseinurako lehiaketa antolatu du.

16 urtetik gorako edozeinentzat dago irekia lehiaketa. Logoak, 'Goierri 21. Ahots guztien leku' lema jaso behar du eta Tokiko Agenda 21aren kontzeptu eta filosofia islatu behar du (garapen iraunkorra, ingurugiroarekiko errespetua, herritarren parte-hartea, oreka ekonomikoa...).

Lehiakide bakoitzak gehienez bi logo proposamen aurkeztu ahal izango ditu. Logotipo proposamenak euskarri informatiboan aurkeztu behar dira (jpg formatuan). Lanak gutun itxian joan behar dira, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa agertuz.

Lanak Goiekira bidali behar dira, postaz, behar bezala babestuta, gastu guztiak ordainduta, eta kasu bietan gutunean helbide hau idatzirik: Goierriko Ekimena S.A. Industiraldea, 29. 20240 Ordizia. Edo posta elektronikoen bitartez, datu pertsonalak eta telefonoa ageriz, helbide honetara: agenda21.goieki@goierri.org.

Epaimahaia Goiekiko teknikari talde eta arduradunetz osatuta egongo da. Aurkeztutako logoen ikusgarritasun bisualak eta logoen adierazpen sinbolikoaren indarra izango dira batez ere kontuan. 600 euroko sari bakarra banatuko da.

Lanak aurkezteko epea martxoaren 8an amaituko da. Lehiaketaren erabakia Goiekin kartel baten bitartez argitaratuko da martxoaren 12an.

Lema lehiaketa

Logotipo lehiaketa egin aurretik, lema lehiaketa egin zen Goierri Telebistan, sms bidez. Ainhua Murgiondo izan da irabazlea eta Valderojoko parkean asteburua igarotzeko aukera izango du, pentsio erdian. Aukeratutako lema ondokoa izan da: 'Goierri 21: ahots guztien leku'.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



- × LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- × ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55




TAPIA

TELEKOMUNIKAZIOAK eta
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Enpresa baimendua

- Kiroldegi - Eskola - Etxebizitza eta industrirako instalazioak
- Automatismoak - Kontrolak - Mantenimenduak

Ibabe Industrialdea, 21
943 88 95 94
LAZKAO



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
943 88 11 94
ORDIZIA

Euskal Herriko helduen kantu txapelketa

'Euskal Kantuzaleen Elkartea. Kantugintza' elkarteak 16 urtez gorakoen kantu txapelketa antolatzeari ekin dio. Lau urtez behin egin ohi den txapelketa hau Euskal Herri osora zabaldua dago (zazpi probintzietara), probintzi bakoitzeko kanporaketak erabaki ondoren. Donostiako Kursaleko areto nagusian jokatu da Final Nagusia ekainaren 19an.

Gipuzkoan burutuko diren bi kanporaketetako bat Ataunen izango da, bestea Arrasaten. Biak apirillean egingekoak dira, finala Oiartzunen izango da maiatzaren 16an. Kantu txapelketa honetan parte hartu nahi izanez gero bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

- hiru sail edo modalitate izango dira; bakarka, binaka eta taldeka (musika tresnaz lagunduta edota "a capella").

- Partehartzaileek bi kantu kantatzeko aukera izango dute (lehendik sortuak direnak edota ezagunak diren kantuak, edota sortu berriak direnak).

Informazio gehiago nahi izanez gero, harremanetarako telefono batzuk luzatzen dira: Ataunen, 658726177 (Maximo) edo 943180049 (Dionisio); Oiartzunen 943492509 (Txiki).

Oihana Garciaren liburua: 'Partehartzea enpresan'

Lazkaoko Oihana Garciak 'Partehartzea enpresan. Begiratu historikoa, begiratu kritikoa eta lankidetzaren begiratu' liburua kaleratu du. Ekarpen bat egin nahi du lazkaotarrak, "ikuspegi orokorra izaten laguntzeko, eta hortik, partehartzearen ikuspegi kooperatiboa eraikitzen joateko".

Xabier Mendiguren Elizegiren azken lana:

'Arbelaren gainean':

Itsasondoko eta itsasondorren kontakizunak

Oraingoan ere Goierri kokatu du Xabier Mendiguren Elizegi beasaindarrak bere azken liburua. Gertaera gune nagusia Itsasondo da.

Bere familiako adarretan ibili da aztarrika, pertsona egiazko baina misterioz beteak deskubritzeko: etxe oneko mutil sentibera bat, poema minduak idatzi eta gazterik suizidatu zena; Ezkion Ama Birjina ikusi eta haren aginduz apaiz sartu zena; mutikotan elbarri geratu eta lagunekin jolastu ezinik, besteen jolas eta bizikizunen kronista bihurtu zena...

Fikzioaren eta saiakeraren arteko mugan jolasean dabil Mendiguren 'Arbelaren gainean' liburuan. Era berean, oroitzapen pertsonala eta kolektiboa gurutzatzen ditu etengabe, familia baten eta herri txiki baten bitartez kontatzen baitira XX. mendeko gertakari esanguratsuenetakoak, hala nola industriaren gorakada eta krisia, edo nazionalismoaren sorrera eta beranduago erronka armatuarena.

Obra berezia da 'Arbelaren gainean' liburua, beste idazle ezagun eta ezezagun askoren testuak bereganatzen eta komentatzen dituen. Gurutz Sarasola 'Lotsati', Jesus Lete Sarasola eta Eustakio Mendizabal 'Txikia'aren literatur aipamenak jasotzen dira besteak beste 'Arbelaren gainean' liburuan.



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

e txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia



RENAULT

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882 442
☎ 943 888 901
Faxa: 943 888 901
LAZKAO

Ohiko erromesaldia Xabierra

Urtero bezala, Andre Mari Zeruratuaren parrokitik, Ordizian, Olaberrian eta Beasainen bizi diren nafarrek, beren zaindari Xabierko San Frantzisko ohoratu nahi dute martxoaren 13an, larunbatez, egingo den Xabierko ibilaldian parte hartuz.

Gurutze-bidea arratsaldeko 3etan abiatuko da Zangozatik eta Xabierko Santutegira iritsi ondoren, arratsaldeko 5etan emango dute meza hainbat apaizen artean.

Gurutze-bidean parte hartu nahi ez dutenek, bidaia zuzenean jarraituko dute autobusean Xabierra, autobusak biltzeko jarritako tokiraino.

Eguna ahal denik eta gehien aprobetxatzeko, autobusa goizeko 9etan irtengo da Goierri-tik eta Xabier inguruko leku politak bisitatuko dira, hala nola, Sos del Rey Catolico herria, eta abar. Jateko ogitartekoren bat edo zerbait eramatea gomendatzen da.

Erromesaldirako izenak emateko: Beasainen, Seroretxean, 10:00etatik 12:00etara; Olaberrian, Lurdes Txokarra andreari; Ordiziakoek Beasainen eman behar dute izena, antolakuntza hobea izan dadin.

Autobuseko jarlekuak betetzean itxi egingo da izenemate-epea. Bidaiaren prezioa 12 eurokoa da.

Irteera orduak: Olaberrian, igerilekuen ondok, goizeko 9etan; Beasainen, Barrendain plazatik, tren-geltokitik, goizeko 9:05ean; Ordizian, tren-geltokitik, goizeko 9:10ean.

I. Olaberriko saria nagusia

Otsailaren 28an, Olaberriko Karting-eko instalazioetan jokatu da CN Formularen eta Barketen I. sari nagusia. Mendiko denboraldia hastear da goenean, ibilgailuak puntuan jartzea da txapelketa honen helburua. Olaberriko kartingean aldaketak egin dituzte proba honetarako. Parte hartzaile ugari izango da bertan: Adolfo Posada (F3000), Josu Ugarte (Speed Car), Alberto Alonso (Speed Car), Carlos Goncalves (Speed Car), Daniel Lejarraga (BRC), Santi Guitart (Speed Car), Javier Alday (Speed Car), Gorka Apalantza (Speed Car), Fran Cobo (BRC), Jesus Bango, Daniel Sordo eta Vilariñotarrak, Andres (F3000) eta Angela (BRC) izango dira. Patxi Egozkue ere Olaberri izatea espero da, bere F3000 autoa egokitzen bukatzen badu behintzat.



VI. Gabiriko rallysprinta

Lagun Artea eskuderiak aurten ere Gabiriko rallysprinta antolatu du. Otsailaren 29an izango da, arratsaldeko 3etan irtengo da lehenengo autoa Korta erretegitik. Gabiriatik Legazpirako bidea, 6,5 kilometrokoa, bi norabidetan egin beharko dute partehartzaileek. Sari ematea arratsaldeko 7,30etan egingo da Korta erretegiaren. Euskadiko Rallysprint txapelketarako puntuagarria izango da Gabiriko saioa. Informazio gehiago Gabiriko kronikan.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO
LAND-ROVER

ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxes: 943 88 48 11
www.antzizar.com
BEASAIN



Ixiar Arteaga
ENBAko abokatua

**25.000
euro arte
emango da,
fondo
galdurako
laguntza
moduan,
edo/eta
jardueran
hasteko
gastuetarako
hartutako
maileguen
interesen
hobari
moduan.**

Azken urteotan maiz hitzegin da nekazaritzaren sektorearen zahardadeari buruz eta aldi berean baserrian dagoen gazte faltaz.

Egoera honi irtenbide bat eman nahian aspaldidanik Diputazioak, Gaztearen Lehen Inkorporaziorako laguntza jarri zuen martxan, baina ENBATik konturatu gara jende askok ez duela laguntza linea hori ezagutzen. Jende askoren ustean Gaztearen Lehen Inkorporaziorako laguntza kaleko jendea baserri-ratzeko sortu den laguntza da, eta hori egia izan arren ez da egi osoa, gure baserrietan lanean diharduen hainbat jende inkorporatzeko ere baliagarria baita.

Ondoren, laguntza zenbatekoa den, eskaera egiteko baldintzak zeintzuk diren eta zein jarduerak diren diruz laguntzen direnak aztertuko ditugu:

Diruz lagunduko diren jarduerak

Nekazari gaztearen hasiera, ondorengo prozeduraren baten bidez egiten denean:

- Nekazari gazteak ustialekuko jabetza haren izenean jartzea. Egintza hori indarrean dagoen legeriaren arabera egingo da, ustialekuko elementuak eskualdatzeko kontratu baten bitartez, zeinak jasoko duen nekazari gaztearen izenean jartzen direla ustialekua kudeatzeko erantzukizun zibila eta zerga gaietakoa, eta ustialekua osatzen duten ondasun eta eskubideak. Eta hori guztia eskritura publikoan jaso behar da.

- Ustialekuko jabeak eta nekazari gazteak hitzarmena egitea, idatzita utzirik gazteak parte hartuko duela, gutxienez %50ean, kudeatzeko erantzukizunetan, ustialekuko emaitza ekonomikoetan, kudeaketak dakartzan arriskueta eta ustialekuan egingo diren inbertsioetan. Hitzarmen horrek gutxienez 6 urterako izan behar du eta eskritura publikoan jaso behar du. Ustialekuko jabeak ustialekua osatzen duten elementuen herena behintzat nekazari gazteari eskualdatu beharko dio, nahiz eta zati horren erabilpenak eta ustialetak gainerako guztiari lotuta jarraitu.

- Ustialekuko jabe den sozietate bateko kide izaten hasten denean, sozietatea lehendik dagoena nahiz eratu berria izan. Nolanahi ere, sozietatea legez eratu izan behar da.

Zenbatekoa

- 25.000 euro arte emango da, fondo galdurako laguntza moduan, edo/eta jardueran hasteko gastuetarako hartutako maileguen interesen hobari moduan.
- Diruz lagun daitezkeen gastuak:

- X Lur sailen eta/edo ustiapenaren errenta kontratuko lehen eta bigarren urtealdiak, ezartzen diren moduluen arabera. Ez dira gertuko ahaideen arteko errentak onartuko.
- X Hasierako notaritza eta erre-gistro gastuak.
- X Legez eratutako elkartean sartzeko gastuak.
- X Hala balegokio, famili ustiapeneko gainontzeko ondorengoei legokiekeen heren-

tzia eskubideak ordaintzeko gastuak.

- X Eskudun diren teknikariak egindako bideragarritasun azterketa eta ustiapenaren neurketa gastuak.
- X Lurraren eta ustiapenaren kapitala egokitzea eta zabal-tzea, bideragarritasuna eta emaitza ekonomiko egokiak bermatzeko.

Baldintzak

- Betebehar fiskalak beteta edukitzea.
- Nekazaritza eta Ingurumen Departamenduak diru laguntza emateko banako erabakia hartzeko unean 18 urte beteta eta 40 urte bete gabe izatea eta nekazaritza ustialekuko jabe urte-bete baino gutxiago eramatea data horretan.
- Laguntza eskaera aurkeztea, gutxienez, 40 urte bete baino sei hilabete aurretik.
- Eskaera aurkezteko garaian, behar den gaitasun profesionala izatea.
- Jarduera nagusia nekazaritza izango da, eta Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian egon beharko du altan.
- Eskualdaketa salerosketa bidez egingo da, bai eta usufruktuaren edo jabetzaren lagapenaren bidez edo oinordetza-gutunaren bidez.
- Erabaki horiek eskritura publikoan jasoko dira, laguntza onartu eta 3 hilabete igaro aurretik.

Informazio gehiago jaso nahi baduzu, gerturatu zaitez OCARA edo ENBAko bulegoan egin kontsulta.

Intxusa

Maiz, sendabelar bat izen ezberdinekin aurkitzen dugu, kasu honetan: intxusa, sauko, sauku, sauka, sakute, sabuka, sabiko, saguka, sabukitze, sagukitze, sarets, plausta, plausta ar, txotxika, txikutxa, eta abar. Euskal Herriko leku bakoitzean era ezberdinez izendatzen da, baina "intxusa" izena da erabiliena. Latinez izen bakarra dauka, "Sambucus nigra", horregatik interesgarria da hau jakitea, zeren horrela aipatuz badakigu zehazki zein sendabelarraz hitz egiten ari garen.

Sendabelarra baino, zuhaitz txiki bat da. Ezaugarri aipagarrienak bere azala (karatxoak balitu bezala) eta bere loreak ("kopa" baten antzera eta usain bereizgarri batekin) dira. Bi metrotik lau metro arteko altuera edukitzen du eta hezetasun handia dagoen lekuetan berekasa irteten da, batez ere, erreka ertzetan. Gipuzkoa, Iparraldea eta Bizkaian berekasa asko irteten da, euri asko egiten duelako. Nafarroan eta Araban berriz gutxi dago. Ondorioz, sendabelar honi buruzko ezagupenak oso zabalak dira, ugarria denez, asko erabiltzen delako (batez ere Gipuzkoan).

Intxusa, ukendu bezala erabiltzen da gehien. Ukendu honek dituen erabilpenak izugarri aberatsak dira, hain zuzen, erredu-
ra, zauria, ospela, hontoak, bikorra, hazkurea, eta abar oso luze batentzat oso onuragarria suertatzen da. Bere propietate guztiak ez dira liburuetan aipatzen, baina neronen ikusi eta ikasi dut azaleko arazoentzat, esango nuke ia-ia guztientzat oso ondo doala. Intxusarekin bakarrik egindako ukendua azalerako oso ona da. Azkenik, nere

gomendiorik hoberena da, ukendu hau egin eta erabiltzea. Bizipen aberasgarriak baitira gure irakaslerik hoberenak, inoiz ahaztuko ez ditugunak.

Zorion Insausti



Intxusa (Sambucus nigra L.)

● Deskribapena

7 metroraingoko zuhaitztxoa. Hostoak konposatuak, oposatuak eta erorkorrak. Lore zuri eta usaintsuak unbela ikusgarrietan. Fruitu beltzeskak.

● Gipuzkoan duen hedaketa

Mendi altuenetan izan ezik, Gipuzkoa guztian ikus dezakegu. Nahiago ditu lurzoru heze, sakon eta emankorrak, horregatik erreka bazterretan izaten da ugaria, baina baratz inguruetan eta mendiko hartxingadietan ere bizi izaten da.

● Ugalketa nola egin

Oso erraz irteten da bai hazitik, bai hondoko altsumetatik eta bai udaberriaren hasieran 30 cm inguruko aldaxkatik. Mintegi komertzialetan aurkitu daiteke, baina ez da arrunta.

● Erabilerak

Loreak diuretikoak eta izerdiarazleak dira eta fruituak eta azala, berriz, laxanteak. Fruituak ardoari kolorea emateko erabili izan dira eta garrantzi handia dute hegaztien elikaduran. Oso egokiak lurrak eusteko erreka bazterretan eta beste gu-
ne hezeetako heskaietan.

● Mantenu eta zainketa

Ez du zainketa berezirik behar, baina inausketa oso ongi jasaten du eta segituan errekupeztatzen da.

KATAGINETA

Kataginet (Genetta genetta) dugu gaurkoan gure basoetako protagonistetarikoa bat, hain zuzen orain aste bete inguru hasia duten beren arteko amodio joku eta gortea egiteagatik. Garai hauetan kataginetak arrak han hemenka arituko dira uzkiak azarnak utziaz basoan zehar, harri eta enborretan berari dagokion eremua markatu eta beste-
ei jakitera eman asmoz. Horrekin batera, nahiz eta urte guztian bakarka ibiltzen diren, oraintxe dute une bakarra bikote modura ibiltzen direna, ugalketa zikloaren lehen urratsean.

Ustez arabierrek ekarritako katu antzeko honek, belarri borobilak eta 5 hatz eta behatz azaltzen ditu. Nekez ikusten den animalia da, beren ohitura ilunabar eta gau aldean ibiltzea baita, eta zenbait kasutan ehiztari trebea izanda ere oilategiren bat bisitatzea ere jotzen du.

Baso sakonak ditu gogokoan eta enbor zaharren zuloetan izaten du babes eta lo leku. Bertan umaldia egin eta erditzetik 2 hilabete ingurura aldegitik dute kumeak. Basa abere honen eragina gizonen jardueretan ez da oso gustoko...baina beste horrenbeste esango luke berak basoen mozketak, nekazal jarduera sistemengatik, bai eta ehiztariengatik, izan ere basoko fruitu, intsektu eta txoritxoekin nahikoa badu ere, gerroz eta zailago egiten baitzaio horiek aurkitzea!. Eta hauek lortzean ere tripako min galanta askotan... Prozesionariaren aurka hegazkinez botazen duten Dimilin koipetsu hori ote?

**"Intxusaren ukenduak
dituen erabilpenak
izugarri aberatsak dira"**

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Santi Garmendia Gaintzako alkatea:

"Azpiegitura egokiekin, jendearentzat Gaintza atsegina egin nahi dugu"

Azpiegitura lan garrantzitsuak egiten ari dira azkenaldian Gaintzan. Ur eta argi zerbitzuan zeuden arazoak konpontzeaz daude. Ur zikinen saneamendu lana da hurrengo lehentasuna. Herri txukun eta erakargarria eskaini nahi baitute gaintzarrek, batez ere gazte jendea erakarri nahi dute, herriari bizia emateko. Horretarako, etxebizitza berriak egiten ari dira herrian. **Santi Garmendia alkateak kontatu dizkigu xehetasunak.**

Aurreko legegintzaldiak zehaztutako hainbat proiektu martxan jarri edo beste batzuk bukatzen ari dira Gaintzan. 125 biztanleko herria da Gaintza.



Santi Garmendia Gaintzako alkatea.

Ur hornikuntza

Azkeneko urteetako proiekturik garrantzitsuena izan da ur sarearen berritzea. Uda garaian nahiko gaizki ibiltzen ziren, eta etxe bakoitzak bere irtenbidea aurkitu beharrean izaten zen. Orain ur depositu berria egin dute Gaintzan. Arriarandik jasotzen dute bertan ura eta handik herrira

zabaltzen dute. Ur sarearen lanen lehenengo bi faseak aurreko legegintzaldian amaitu zituzten eta hirugarrena eta azkena, ia amaitzeaz dago.

Argi indarra

Gaintza handitzen ari da. Etxe berriak egiten ari dira eta behar berriak ere badira. Argi indar gehiagoren kasua da hori. "Etxe berriak egiten ari direnez, argindar gehiago behar da eta arazo horri erantzuna berehala eman beharrean zegoen. Transformadore bat eraiki behar zen, energia gehiago emateko. Kokapen arazoak izan ditugu, baina azkenean, konponbide batera iritsi eta argi in-

darraren arazoa ere konpondu dugu", dio Santi Garmendia alkateak.

Saneamendua

Ur zikinak bideratzeko lanak ere lehentasuna dira Gaintzan. Izan ere, "baserri bakoitzak bere erantzuna eman izan die ur zikinei, putzu beltzekin. Baina etxeak egiten doazen heinean, arazo horri ere irtenbidea eman behar zaio. Ur zikinak bideratzearen kompetentzia Gipuzkoako Diputazioarena eta Ur Kontsorzioarena da. Beraiek badiutuzte herri txikietarako proiektuak, baina guk urgentziazko konponbidea behar dugu, etxebizitza berriak eraikitzen ari dira eta".

Etxebizitza berriak

Herri txiki gehienentzako, etxebizitza berriak eraikitze-ko apustua egin du Gaintzak. Biztanle kopurua gainbehera joan da azkeneko urteetan eta herria indartu egin nahi dute etxebizitzekin, "daukagun ingurune ederra eskainiz. Gazte jendea erakartzea nahi da herriari bizia emateko", dio.

Hiru lur eremu urbanizatu dituzte horretarako. Bifamiliako etxe bat dagoeneko eginda dago eta orain bigarren eremuan, beste bina bizi-

"Ur sarea osatzea azkeneko urteetako proiekturik garrantzitsuena izan da"

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

943 88 87 02

BEASAIN

tzako hiru etxe egiten ari dira. Hirugarren eremuan, azkenik, 5 etxe adosatu egingo dituzte. Enpresa eraikitzaileak erakartzen ditu Gaintzak, eta beharra izanez gero, gehiago ere egingo lituzkete.

Etxebizitza berrietarako gazte jendea erakarri nahi dute gaintzarrek. Herriari bizia eman eta etorkizuna ziurtatzeko. Familia gazteei zuzendutako asmo bat ere badute: haur eskola edo haurtzaindegia. Informazioa jasotzen ari dira eta aukera aztertuko dute behar hori duten familiekin. Gai honekin lotuta gainera, zorioneko dira Gaintzan, hamabost eguneko tartean bi haur jaio baitira. 14 urtetik beherako 18 bat haur eta gaztetxo daude eta elkarren arteko harremana sendotzeko eta herrimina sortzeko, uda partean udaleku irekiak izaten dituzte.

Ingurune pribilegiatua

Gipuzkoaren zati handi bat ikus liteke Gaintzatik. Paisaiak eta inguruneak jende ugari erakartzen du Gaintzara, batez ere eguraldi ona denean. "Guk enpresarik ez dugu, baina ingurune paregabe hau hemen dugu eta horri

etekina ateratzen jakin behar dugu. Inork ez digu kenduko daukagun ingurunea. Modu arrazional batean, ondo bideratzea da kontua. Gaintzatik Ordiziara 10 minutuan iristen da. Kontua da azpiegitura egokiak edukitzea, atsegina egitea eta aukera ego-

kiena jartzea hona etortzeko. Herrian gustura bizitzeko ahalegina egin behar da".

Bi jatetxe ere badira Gaintzan eta astebukaeretan mugimendu handia izaten da. Aurrera begira, herriko ostaua dena berritzeko asmoa ere badu udalak.



Gaintza-Altzaga-Baliarrain ibilbidea

Altzaga, Baliarrain eta Gaintza bitartean oinezkoentzat edo bizikletentzat ibilbideak moldatzen ari dira hiru udalak. Herri bakoitzak bere aisi gunea izango du. Gaintzan, iturria eta informazio panela jartzea falta dira aisi gunehori amaitzeko. Ur deposituaren inguruan egin da aisi gunea. "Guk fabrikarik ez daukagu baina beste gauza batzuk dauzkagu eskaini ditzakegunak", dio Santi Garmendiak. "Ibilbide hauek ahalik eta etekinik handiena atera nahi diogu, turismo aldetik. Goiturrekoekin harremanatan gaude", argitu du.

Herri kaskoan dagoen haur jolas parkea txukuntzeko ideia ere buruan darabilte udaletxekoek.

Beste luxu bat ere badu Gaintzak: abuztuan, Donostiako su artifizialak ikustera jende asko gerturatzen baita. "Itsasoa ere ikusten da Gaintzatik, San Martin de Tours ermitatik eguraldi garbia denean", argitu du Garmendiak.

Dirua arazo

"Dirua ez da dena, baina asko baldintzatzen du", dio Gaintzako alkateak. "Ideiak ez dira faltan izaten baina askotan dirua izaten da falta izaten dena. Laguntzak badaude han eta hemen baina zati bat bakarrik izaten da. Gainerakoa udalak jarri behar du. Lehentasunak zehaztu behar dira eta hortik pixkanaka joan eta herriari ahalik eta bizirik gehiena eman. Askotan ezin dira asmo guztiak burutu, udala ezin baita zama handitan murgildu".

Denborarekin eta diruarekin egiteko beste asmo baten berri emanez amaituko dugu Gaintzari buruzko erreportaia: hilerria lekuz aldatzeko asmoa ere buruan darabilte.

NI,... GURDI



Karlos Argiñano sukaldaria:

"Erosketak egitea, prestatzea eta jatea gustatu behar zaizkio sukaldari on bati"

Goierritarrik ospetsuenetakoa izango da Karlos Argiñano. Askotan saiatu arren, ezin. Beti batean eta bestean, beti presaka. Azkenean, Ordiziako iraileko azokan harrapatu genuen, gazten dastaketa bukatu ondoren. Eat-batean egindako elkarrizketa da. Osagai asko ditu. Hona hemen emaitza.

- Beti lanez gainezko zabiltzala diozu baina Ordiziara etortzeko tartea hartzen duzu.

- 30 urte dira aurtengoarekin lehiaketa hau egiten dela eta ni denetan egon naiz. Niretzat tradizio handia da, hasiera-hasieratik ibili naiz hemen. Alde batetik oso polita da, baina bestetik, edadetsua sentitzen naiz.

- Idiazabal Gaztaren bultzatzaile eta defendatzailea zara.

- Inongo zalantzarik gabe. Indar handia ematen dit niri horrek. Ez gaztak bakarrik. Gu famatuak garela, komunikabideetan ateratzen garela... eta hemengo gauzak saltzeko gu beti prest.

- Beasainen, berriz, odolkia bultzatzen.

- Hori normala da, ni beasaindarra naiz eta. Han ere hasiera-hasieratik izan naiz, nire koadrilakoek antolatuta baitzuten. Odolki ederrak egiten dira Beasainen eta inguruan.



- Oro har, bertako produktuen bultzatzaile zaitugu.

- Telebistan kobratuta egin dut lana eta han beste gazta batzuk ateratzen ditut. Baina nik nire inguruko gauzak ez ditut sekula diruarengatik egin. Beti gure produktuak bultzatu ditut, bai antxoak, bai berdela, bai gazta, bai odolkiak... hemengo baserritarrei bultzakada ematen saiatzen naiz. Izan ere, baserritarrek galtzen baditugu, gure zapoak eta gure tradizioak galdu egingo ditugu. Hori triste samarra izango litzateke, baina ez dut uste hori gertatuko denik.

- Tradizioa bultzatu nahi duzu, baina teknologia berrietan buru belarri sartuta zabiltza. Interneten ere azaltzen zara.

- Nik ez dut kontrolatzen, eh! Baina interneten tope nabil. Lau edo bost sari eman dizkide. Nik uste, gaztelaraz, orrialderik ederrenetakoa dela munduan. Hilero 5.000.000 lagun sartzen dira nire orrian eta hori asko da. Egunean, 35.000 lagun sartuko dira, mundu guztikoak.

Aiala sukaldaritza eskola ere badaukat Zarautzen, eta 16 herrialde ezberdinetako ikasleak dauzkut, denak ere internetaren bidez etorritakoak. Japoniarrak, finlandiarrak...

- Telebistan ere nazio askotan aritu izan zara.

- Momentu honetan telebistan liderra naiz. Denak txundituta daude. Alde batetik, oso ondo, baina bestetik, horrek esan nahi du zer maila dagoen telebistan. Sukaldaritzako programa batekin liderra izatea ere! Niretzat oso ondo, sukaldaritza ere kultura da eta pertsonak ondo elikatuta, errazagoa izango da, lan egitea, ikastea, jolastea...

- Famaz gain, telebistak zer eman dizu?

- Fakturak ordaindu ditut telebistari esker, bestela oso gaizki ibiliko nintzatekeen. Eskola montatu dut, izugarrizko baserria egin dut eta pilotarien giroa ere uste dut aldatu dela ni nagoenetik. Pilotariak gaur adina sekula ez dute irabazi.

"Telebistan liderra naiz, alde batetik, oso ondo, baina bestetik, horrek esan nahi du zer maila dagoen telebistan. Sukaldaritzako programa batekin liderra izatea ere!"

- Saltsa guztietako perrexila.

- Hala da. Ni beti ikasle txarra izan naizenez, lan asko egin behar!

- Baina beti sukaldean.

- Sukaldean beti. Hasieran amak erakutsi zidan. Ama paralitika da eta ni anai zaharrena. Beti tokatu izan zait sukaldean aritzea, txiki-txikitik.

- Eta, gustura?

- Oso gustura, ni sukaldean ez naiz aspertzen. Nik gustatzen zaidana egiten dut eta horrek erraztasun handia ematen du.

- Baina sukaldetik kanpo hainbeste lan egiten duzunez, sukaldariko tarterik hartzen al duzu?

- Beste modu batera egiten dut lana. Nik 6, 8, 10 lagunentzako prestatzen dut eta ez naiz jatetxean topera ibiltzen. Horretarako 6 seme dauzkut martxan.

- Semeak ere jarraitzaileak dituzu, beraz.

- Beharko. Lan gogorra beraiek egin behar dute.

- Argiñano abizenaren jabe izate-
ak lagunduko die.

- Hori pentsatzen dut. Urtee-
tan iraungo dutela abizenare-
kin, lan eta lan.

- Sukaldari on batek zer behar
du?


- Erosketak egitera joatea, su-
kaldean gauzak prestatzea eta
jatea gustatu behar zaizkio
sukaldari on bati. Eta gero,
garbia izatea. Jendeari janaria
ematen diozu eta janaria aho-
tik sartzen da. Eta ahotik sar-
tzen da bai osasuna eta bai
gaixotasuna. Horretarako
garbi lan egin behar da, eta
kontzientziz.

- 'Zoazen lekura zoazela' iragar-
kian ere ikusten zaitugu.

- Hori iragarki bat da.

- Oporrik hartzen al duzu?

- Bai, azken urteotan, belero-
an, itsasora joatean naiz. Lau
edo bost bikoteren artean be-
lero handi bat alokatzen dugu
eta Turkia, Grezia... aldean
ibiltzen gara. Oso plan polita
da, lasaia. Itsasoa gustatuz
gero, oso plan polita da.




Beasaindik mundura

Karlos Argiñano Urkiola Beasainen jaio zen 1948ko irailaren 6an. Txikitatik datorkio su-
kalderako zaletasuna, ama paralitika zuen
eta lau senidetan zaharrena zenez, sukaldean
aritu behar izaten baitzuen. Lazkaoko Agus-
tindarretan lehen mailako ikasketak egin zi-
tuen, eta gero maestria industrialak ikasi eta
CAFen txapista lanean aritu zen. 17 urtere-
kin, Zarauzko Ostalaritza Eskolan izena
eman zuen, Luis Irizarrek Euomar Hotelean
zuen eskolan. Han ezagutu zituen Pedro Su-
bijana eta Ramon Roteta sukaldariak.

Hiru urteren ondoren Luis Irizarrek osta-
laritza mundua bertatik ezagutzeko aukera
eman zion. Donostiako Maria Kristina hote-
leko sukaldean aritu zen, eta handik, Donos-
tia bertako Londres hotelera joan zen.
1970ean Zarauzko Golf Klubeko sukaldea-
ren ardura hartu zuen eta bere emaztea den
Luisirekin batera, 9 urtean izan ziren bertan.
Euskal Sukaldaritza Berria mugimendua be-
te-bete harrapatu zuen eta buru belarri par-
te hartu zuen, besteak beste, Juan Mari Ar-
zak, Pedro Subijana, Ramon Roteta, Tatus
Fombellida eta Jose Juan Castillorekin bate-
ra. 1978a bere jatetxea izateko ametsa bete
zuen. 1996an Aiala Sukaldaritza Eskola
inauguratu zuen.

Sukaldaritza, bereziki euskal sukaldari-
tza, mundu osoan zabaldu du telebistaren bi-
tarte: Amerikako Estatu Batuetan, Argenti-
nan, Mexikon, Suedian, Italian, Suitzan,
Alemanian, Frantzian...

GU,... GURDI



Etorkinentzako etxez etxeko laguntza ikastaroa eman du Gurutze Gorriak

Goierriko Gurutze Gorriak etorkinentzako etxez etxeko laguntza ikastaroa eman berri du. Etorkinen integrazioa bultzatu eta lan poltsa bat osatzeko helburuarekin, Beasainen erakunde honek duen egoitzan eraman dute aurrera ikastaroa. Goierriko Gurutze Gorriko arduradun den Xabier Moreno, Ainhoa Nuñez ikastaroak iraun duen bitartean antolatu duten haurtzaindegiko arduradunak eta Alaitz Oiarbide erizainak eman digute ikastaroaren berri. Havez gain Alicia Diaz ikastaroaren bultzatzailea eta Inma Berrocal pedagogo ere aritu dira antolaketa lanetan.



Ainhoa Nuñez, Xabier Moreno eta Alaitz Oiarbide

Ikastaroaren edukiak

Ikastaro hau, etorkinak ez diren bestelako kolektiboei zuzendua egon da orain arte eta etorkinei eman ahal izateko eduki eta materialen moldaketa egin beharra izan da. Hala, ikastaroa etorkinentzat dela ikusiz, eduki hauek jorratu dira:

- Etxez etxeko laguntzaren funtzioak.
- Gizarte eta osasuna.
- Lanerako orientazioa.
- Gizarte heziketa, heziketa pertsonala eta hizkuntza heziketa.

Ikastaroa bi zatitan banatu da: 110 ordu teoriko eta 90 ordu praktikak.

Hurrengo ikastaroan, euskara modulua sartzeko aukera eskaini nahi dute, Udal Euskaltegiarekin elkarlanean, eta horrenbestez 60 ordu gehiago

iraungo du gutxi gora behera. *“Udal Euskaltegiak esan ziguten hainbat etorkinek gure ikastaroa egiteko euskaltegia utzi zutela eta horri konponbidea eman nahi zaio euskara moduluarekin. Gainera beharrezkoa ikusten dugu etorkinek gutxienezko euskara ezagueraz izatea”.*

Helburuak

Bi helburu nagusi ditu ikastaroak. Alde batetik, eguneroko bizitzan behar gehien duten pertsona eta gizarte taldeek beraien gaitasunak garatzea, horretarako talde moduan eta pertsonalki beren autonomia bultzatuz eta baita integrazio osoa bultzatuz ere. Eta beste alde batetik lan poltsa bat osatzea.

Ikastaroa egoera legalizata duten etorkin guztiei, gizonetako zein emakumezko,

zegoen zuzendua, baina, emakumezkoek bakarrik egin dute. *“Lan mota hauetan gehienetan emakumeak aritzen dira. Halere kurtsoa gizonetako batek hasi zuen baina utzi beharrean gertatu zen eta neskak bakarrik geratu ziren”*, dio Alaitzek.

Etorkin gehienak beraien herrialdeetan ikasketak egin dakoak diren arren, hemen ez zaizkie ikasketak konbalidatzen. Hori dela eta, gehienak, prestaketa berezirik behar ez duten lanetan aritzen dira: etxeko lanetan, etxez etxeko laguntzetan eta batez ere zaharrak zaintzen. Erresidentzietan eta eguneko zentruetan lekua badute, zehaztu gabe baitago langileen perfila. Oraingoz, geriatría laguntzaileak eta etxez etxeko laguntza ikasitakoak hartzen dituzte.

Finantziak

Ikastaroa eman ahal izateko beharrezko diruaren zati handiena Gurutze Gorria bertako POI (inmigratziarako plana) eta Interlaboratik lortu da. Gainontzekoa Goierriko Gurutze Gorriak jarri behar izan du. Datorren ikastarorako helburu bezala finantziakzioaren %45-a POI eta Interlaboratik lortu eta gainontzekoa Goierriko entitateetatik (Udalak...) lortzea dute Gurutze Gorrikoek. *“Aurten ez dugu horrelako laguntzarik izan, Ormaiztegi udala bakarrik agertu zen bere herrian zentsatutako etorkinen ikastaroa ordaintzeko prest eta udal horretako ikaslerik izan ez dugunez laguntza gabe geratu gara. Guri egokiagoa iruditzen zaigu udal bakoitzak zerbait ematea, bertako ikasleak izan edo ez”*, diote.



SASIETA MANKOMUNITATEA

www.sasieta.net Martina Maiz, 3 behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 15 55

Ikastaroaren zailtasunak

Zailtasunik handiena finantziarioa izan den arren, ez da bakarria izan. Buruhauste handiak eman diete ikastaroa egiteko prest dauden etorkinak aurkitu eta ikastaroa amaitu arte mantentzeak. “Alde batetik, ikastarora datozen askok, diru arazoak izaten dituzte eta lan eskaintzaren bat dutenean lanari heltzen diote ikastaroa bertan behera utziz. Bestetik, gehienak gurasoak izaten dira eta beren haurrak non utzi ez dute izaten. Lehenari irtenbidea aurkitzea zaila da, baina bigarrena konpontzeko, aurten lehenengo aldiz, haurtzaindegia aurrera ateratzea lortu da bertako bolondresen laguntzaz. Haurtzaindegirako, adin bakoitzari egokitutako materiala lortu da eta zenbait ekintza aurrera eramanez dira bertan: haurrei eskolako lanak egiten lagundu zaie, idazkera eta hizkuntza bultzatu dira... 15 bat lagun 2naka txandatu gara lan horretan eta bolondresak garenontzat asko bete gaituen lana izan da. Lotura handia izan da, baina, oso gustura egin dugun lana izan da eta asko ikasi dugu”, diote hiru bolondresak.

Inmigranteen integrazioa

Gurutze Gorrikoen ustez, oraingoz etorkinak ondo onartuak dira Goierrin. “Orain arte ez dira asko etorri. Ikusi beharko da hementik urte batzuetara, kanpotarren pilaketa ematen bada zer nolako erreakzio izaten dugun goierritarrok. Hori dela eta, kanpotarren integrazioaren alde lana egin beharra dago. Adibidez ikastaroa egin duten seme-alabekin euskaraz lan egin dugu. Hemen denbora gutxi daramatenak kenduta denak euskaldunak dira. Oraingoz integrazioa oso posible ikusten dugu, aurrerantzean zer gertatuko den ikusi egin behar”, dio Xabierrek.

Goierrira iritsi berria den kanpotarra Gurutze Gorriak Beasainen duen bulegora iristen denean, lehenik non dauden, Goierrri zer den kokatzen saiatzen dira eta ondoren INEM-eko bulegoa non dagoen eta hainbat informazio praktiko ematen die. “Beraien lehenengo beharrak lana eta etxebizitza dira, eta guk ezin diegu ez bat eta ez bestea eman. Orientatzen saiatzen gara, ikastaroak eman... Bakoitzak bere arazoak ekartzen ditu eta entzutea



Etorkin gehienak gurasoak izan dira eta beren haurrak non utzi ez zuten haurtzaindegia aurrera aterate bertako bolondresen laguntzaz. Argazkia: Juantxo Unanua.

oso garrantzitsua da. Nola-bait esateko laguntza psikosoziala ematen diegu.”

Orain dela gutxi arte Goierrin zeuden atzerritar gehienak marrokiarrak ziren, baina orain asko ari da aldatzen, gehienak ekuatoriarrak eta ekialdeko Europakoak dira. Gurutze Gorrikoen esanetan, geroz eta gehiago dira bertako eta kanpotarren arteko bikote mistoak.

Eskaerak

“Goierritarrei eskatu nahi diegu etxeko laguntza ikastaroa burutu duten pertsonen bat behar izanez gero, Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeko. Bestalde, gizarte alorrean bolondreski

lan egin nahiko luketen goierritarrei eskatu nahi genieke, Gurutze Gorriak Beasaingo Urbialde kaleko 6an duen egoitzara hurbiltzeko. Bertan nahi duen informazioa eman-go zaio datorren guztiari”.

Eskerrak

Gurutze Gorrikoek eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera ikastaroa aurrera ateratzen lagundu dien guztiei. “Baina, esker berezia luzatu nahi genioke, Goierrriko Gurutze Gorriko gizarte arloa eramanez duen teknikariari, Alicia Diaz, bera izan baitzen ikastaroa etorkinentzat egokitu eta proiektua aurrera ateratzea lortu zuen pertsona”, adierazi dute.



Baserritarren denda, zuretzat ere zabalik
LASTER ZABALIK

Elkarrizketarako mahai alderdianitz baten alde

Otsailak 28: Elkarriren sinadura biltzea

Elkarri, 100.000 sinadura biltzeko kanpaina bat bultzatzen ari da, martxotik aurrera Gasteizko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan elkarrizketarako foro alderdianitz bat proposatzeko. Urtarrilaren bukaera arte ia 50.000 sinadura bilduak zituen Elkarri. 100.000 sinadurako kopurura iristeko, otsailaren 28an, larunbata, sinadurak biltzeko mahaiak jarriko dira. Goierri 30 mahai jarri nahi ditu Elkarri eta horretarako 90 boluntario behar dira. Goierri, gutxienez, 1.500 sinadura biltzea da Elkarriren helburua.



Mobilizazio handia

Egun berezia prestatu du Elkarri helburua lortzeko. 3.000 boluntarioen laguntzaz, 1.000 mahai jarri nahi izan dituzte Euskal Herriko herri ezberdinetan. Era honekin, Elkarri jakitera eman duenez, "otsailaren 28an, ki-deak, boluntarioak eta sinatzaileak elkartzuz, 30.000-50.000 lagun inguru mobilizatu nahiko genituzke. Horregatik esaten ari gara mobilizazio handi bat izango dela, manifestazio handi bat bezalakoa, 1.000 puntu desberdinetan banatuta izango bada

ere. Baina ere berean, ekimen honek izaera hiritar eta erakitzalea izango du. Hiritarra mota guztietako hiritarren borondate anitzak biltzen dituelako modu baketsuan. Erakitzalea borondate horiek proposamen zehatz batean proiektatzen dituelako: alderdien mahai bat gizarteari eta gizarte-eragileen parte-hartzeari irekita".

Sinadura bilketaren esanahia

Elkarri burutzen ari den sinadura bilketa martxoaren 28an amaituko da. Elkarriren ara-

bera, "martxoaren 14an hauteskunde orokorrak egingo dira eta gobernu berria osatuko da Madril. Une horretatik aurrera, Elkarri hiritar ezezagun eta askotarikoen 100.000tik gora sinadura aurkeztuko dizkie indar politiko eta instituzioei. Pertsona hauek sinatzen duten manifestuak gure gizartearen gehiengoaren borondateak islatzen ditu: giza eskubideak, bazterketarik gabeko elkarrizketa, pluralismoa, humanizazioa... Horrez gain, eta zehazki, elkarrizketarako mahai baten proposamena dakar; Eskatera Eskubidearen legeko bide konstituzionalaren bidez tramitatuta". Martxotik aurrera ziklo politiko berri bat irekiko dela dio Elkarri, "eta ehun mila sinaduren eta Eskatera Eskubidearen bidez, gizartearen bi lehentasunak, indarkeriarik eza eta bazterketarik gabeko elkarrizketa, alderdien mahaiaren proposamenarekin batera agenda politikoaren lehen planoan jarriko dira".

izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
✖ Depresioak ✖ Beldurrak
✖ Harremanetarako arazoak ✖ Antsiak
✖ Segurtasun eza
Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

BIOK ZERBITZUAK, S.L.
Enpresetako aholkularitza orokorra
www.biokzerbitzuak.com
☎ 943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA



kutxa

gizarte ekintza

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Urte
guztian
zehar
zabalik



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI



ASTELEHEN
GAUETAN
ITXITA

Sagardotegia

☎ 943 16 25 23
Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA



Egunero
zabalik

Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Martxoak 8: Emakumezkoen eguna

Martxoaren 8a, Emakume Langilearen eguna ospatzeko asmoz, Emakumezkoen As-
tea antolatu du Asmube El-
karteak. Erakusketak, bilerak,
irteerak, zine emanaldia, eta
hitzaldiak antolatu dituzte
besteak beste martxoaren
5etik 12ra arte.

● **Martxoak 5, ostirala:**
19:00etan emango zaio hasie-
ra, Asmuben egindako lan ez-
berdinen erakusketari: oleo
pintura, hari lanak, eskula-
nak... Usurbe Antzokiko Era-
kusketa Aretoan martxoaren
14ra arte.

● **Martxoak 8, astelehena:**
Pelikula bat eskainiko da do-
hainik Usurbe Antzokian,
19:30ean eta 22:15ean.

● **Martxoak 9, asteartea:**
Hitzaldia Udaletxeko Batzar
Aretoan 18:00etan. Ana Txu-
rrukaren eskutik, 'Explicando
la realidad desde el género:
desigualdad, violencia, invi-
sibilidad de la mujer...'

● **Martxoak 10, asteazke-
na:** Osasun Tailerraren ba-
rruan hitzaldia Asmuben
17:30ean. ICTEren eskutik,
'Gizonezkoak eta emakumez-
koa. Zahartzaro ezberdina?'

● **Martxoak 11, osteguna:**
Irteera kulturala Gasteiza:
Santa Maria katedrala, Four-
nier Karta Museoa, Artium

Museoa ikusteko bisita gida-
tuak egingo dituzte. Autobu-
sa eta bazkaria antolatuko du-
te.

● **Martxoak 12, ostirala:** He-
rri afaria, Salvatore jatexean:
autobusa, oparien zozketa eta
dantzaldia ere antolatu dituz-
te.

Gasteizko irteerarako eta
afarirako, martxoak 5 baino
lehen eman behar da izena,
Asmuben, 17:00etatik
19:00etara, astelehenetik os-
tiralerara.

Osasunaren inguruko tailerrak

Martxoan zehar, osasunaren
inguruko tailer desberdinak
antolatu dituzte Asmubeko-
ek.

● **Martxoak 3:** 'Insomnioa
eta lo arazoak'.

● **Martxoak 10:** 'Gizonez-
koak eta emakumezkoak, za-
hartzaro desberdina?'

● **Martxoak 17:** 'Depresioa,
tristuraren gaixotasuna'

● **Martxoak 24:** 'Estresa.
Lanpetuak bainan ez kezka-
tuak'

● **Martxoak 31:** 'Heldutasu-
nari baikortasunarekin aurre
egin'.

Nekane Altuna

Nortasun agiria berritzeko datak

Nortasun agiria berritu nahi dutenek Beasainen egiteko au-
kera izango dute Udal bulegoan, martxoaren 11n eta 25ean.
Txartelak dena den aurreko egunetan banatuko dituzte.

Garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dirulaguntzak

Udaleko Gizarte-Ongizate batzordeak bultzaturik emango dira
garapen bidean dauden herrietan lan egiteko dirulaguntzak.
Era honetan, gazte beasaindarrek parte har dezaten lagunduko
da beka bidez. 100.173 euroko dirulaguntza emango dute. He-
rri txiroetako biztanleen gizarte eta ekonomi egoera garatu eta
hobetzera bideratuko diren jarduerak aurrera eramateko as-
moz, gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetzeta-programak
antolatzeko eta garatzeko emango dituzte dirulaguntza hauek.

Elkartasun balorea indartu eta aldi berean gure herriari lu-
rralde horien egoera gazteen bidez ezagutaraztea da helburua.
18-35 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Gobernuz Kanpo-
ko Erakundeentzat ere izango da dirulaguntzarik. Gipuzkoan
kokatutako Gobernuz Kanpoko Erakundeek eta batez ere Bea-
sainekin lotura dutenek, lehentasuna izango dute. Informazio
gehiago Gizarte-Ongizate Sailean duzue.

Mendiko argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkar-
teak, V. Mendiko Argazki Lehiaketa Igartza Saria jarri dute
martxan dagoeneko. Lehiaketa honetan, lanbidez argazkilariak
ez diren zaletu guztiek har dezakete parte eta gaia mendia izan-
go da.

Argazkiak gehienez ere 30x40 edo 40x50 zm.ko kartoiez
sendotuak aurkeztu behar dira, eta atzealdean egilearen datuak
jarri behar dira. Teknika eta aurkezteko moduari dagokionez
berriaz askatasun osoa dago. Egile bakoitzak gehienez ere bost
lan aurkeztu ahal izango ditu, txuri-beltzean edo koloretan.

Argazkiak martxoaren 6a baino lehen aurkeztu behar dira bi
elkarte hauetakoren batean. Lehenengoak eramango dituen
150 eurotik hasi eta herriko lehenengo sarituak eramango di-
tuen 90 eurotaraino sari desberdinak banatuko dituzte, garai-
kur desberdinez gain. Irabazle ateratzen diren argazkiak Usur-
be Antzokian erakutsiko dira, martxoaren 18tik 28ra.

Igartza futbol zelaiko taberna irekita

Otsailaren 21ean
inauguratu zuten
udaletxeko orde-
zkariek, Igartza fut-
bol zelaian dagoen
taberna. Honela,
kirol gunearen era-
biltzaileei eta ingu-
ruko etxebizitzeta-
koei zerbitzua es-
kaini nahi zaie.



ETXEGINTZARAKO MATERIALAK APAIN KONTENEDOREAK



Bainugela eta
sukaldeetarako
azulejo eta
Gres-en
aukera zabala.



Porcelanosa, Venus,
Keraben, Vives...



Bainugelarako
beharrezko
osagai
guztiak,
exposizioan
ikusgai.



APAIN

ETXEGINTZAKO MATERIALAK APAIN, S.L.

Kontenedoreak
Garraioak garabirekin
Mallutx, 6 - 20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa)
E-mail: apain@infonegocio.com
Telf.: 943 88 00 77 - Fax.: 943 88 82 60



SUTAN

Mugitegi industrialdea, B bidea
20700 URRETXU
Tel.: 665 737 302 / 30



- X Sukalde
klasikoa
- X Burdin
galdatuzko
tximiniak
- X Parrilak
- X Egurrezko
simulazioa
poliuretanoan
- X Poliuretanozko
adreriluak,
arbelak...
- X Harlandua
- X Leihoak
- X Argizuloak



Tobera: Astearte musikalak

Martxoaren 2an: Ordiziako Musika Eskolarekiko elkartrukearen barruan, Tobera Musika Eskolako ikasleek Kontzertua eskainiko dute Ordiziako Herri Antzokian arratsaldeko 6,30etan. Goierrialdeko 2 autobus aterako dira arratsaldeko 5etan Zegamako plazatik ikasleak eta herritarak eramateko.

Martxoaren 9an: Tobera Musika Eskolako Musika-hizkuntzako ikasleen erakustaldia San Martin Parrokian arratsaldeko 6etan. Musika-hizkuntzako eskoletan ikasleek lantzen dituzten kontzeptu, teknika eta lan prozedurak ezagutaraztea da ekitaldi honen helburua.

Martxoaren 16an: Tobera Musika Eskolako akordeoiko, txistuko eta klarineteko ikasleen entzunaldia Kultur Etxean arratsaldeko 6,30etan.

Martxoaren 23an: Tobera Musika Eskolako pianoko ikasleen entzunaldia Kultur Etxean arratsaldeko 6etan.

Martxoaren 30ean: Tobera Musika Eskolako trikiti-xa eta panderoko ikasleen entzunaldia Kultur Etxean arratsaldeko 6etan.

Bideo emanaldiak

Martxoak 7, arratsaldeko 5etan Kultur etxean Guraso Elkartek antolatutako 'Revelion en la Granja' filma izango dugu ikusgai.



Inauteri Jaia

Otsailaren 20an, Aitzuri Herri Eskolako ikasle eta irakasleek inauteriak ospatu zituzten. Mozorro festa eguraldi txarra zela eta frontoian ospatu zen giro paregabea. Bertan buruhandiak eta txokolate beroa hartzeko aukera izan zuten bertaratutako haur eta gurasoek Guraso Elkartek antolatutako.

Aitzgorri Futbol Taldeen partiduak:

Infantilak: Martxoak 7:
Lengokoak- Aitzgorri. Mar-
txoak 14: Aitzgorri-Urola.

Kadeteak: Martxoak 7:
Aitzgorri-Bergara. Martxo-
ak 14: Mariño-Aitzgorri.

Eduardo Albizu

Ingurune paregabea eta erosotasun guztiekin etxebizitzak salgai MUTILOAN

2 - 3 - 4
logela



**Etxebizitza unifamiliarrak
eraikitzeke lurzorua salgai**

943 731 214



Lehenengoaren arrakastaren ondoren

Bigarren erromeria otsailaren 29an

Datorren otsailaren 29an, igandean, era zaharreko bigarren erromeria ospatuko da Zerainen. Zita arratsaldeko 6etatik iluntzeko 8etara izango da Zeraingo plazan. Dantzazale eta festazale guztientzat aukera paregabea izango da Zerainen, ondo pasatzeko eta hankak astintzeko. Igande honetan, trikitilaria Koldo Iparragirre izango da eta dantza sustatzaile-irakaslea Patxi Perez.

Lehenengo erromeriak, otsailaren 2koak, izan zuen arrakasta ikusita, honetan ere jende asko espero da Zerainen. Aurrekoan izan zirenek ezin hobeto pasa zuten eta giro bikaina egon zen. Aste honetan, erromeria edari eta jatekoekin hornituta egongo da dantzan gosetzen eta egarritzen direnentzat. Baita ere Zerainen bola txapelketa dago egun honetan eta jendeak

tradiziozko kirol hau ezagutu ahaldu du eta ondoren, modu zaharreko erromerian parte hartu. Gure ohituren eta kulturaren ondare paregabeak diren erromeriak ezin ditugulako galdu, antolatzaileek goierritar denak gonbidatzen zaituztete Zeraina hurbiltzera.

Endika Alustizaren oroimeneko XI. Bola-txapelketa

Datorren otsailaren 29an, igandea, Endika Alustizaren oroimeneko XI. Bola-txapelketa jokatu da Zeraingo bolatokian. Bola jokoa goizez, 10:00etatik 11:30etara eta arratsaldean, 4:30etatik 5:30etara izango da. Sari ederak izango dira irabazleentzat, trofeoak eta dirua. Antolatzaileak Zeraingo Udala, Oa kultur elkarte eta Liztor-mendi elkarte dira.

Baserriko produktuak kontserbatzeko ikastaroak

Mendikoiko Etengabeko Hobekuntza Sailaren laguntzaz eta Zerain, Segura eta Mutiloako udalen gidaritzapean, baserriko produktuak kontserbatzen ikasteko aukera izango da. Ikastaro hauek hiru egunekoak izango dira eta hiru herri hauetan emango dira. Lehenengo eguneko ikastaroa Seguran izango da, bigarrenkoa Zerainen eta hirugarrenkoa Mutiloan. Martxoaren erditik aurrera izango da ikastaro labur hau eta bazkalondoetan egingo da. Izena emateko aukera otsailaren 27ra arte izango da eta hiru herrietako udal-txeetan dago horretarako parada. Apuntatzen direnekin batera bat egingo da ordutegiak eta datak zehazteko. Informazio gehiago behar izanez gero edozein udaletxetara jo daiteke.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren oharra

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak 2003 urteko laugarren hiru hilabeteko ur eta zabor erreziiboak bidali ditu 2004/02/10eko datarekin. Erreklamazioak martxoaren 10era arte egin daitezke 902302222 telefonoan. Borondatez ordaintzeko azken eguna apirilaren 10a izango da.

Mandioa itxita

Mandioa taberna itxita dago otsailaren 13az geroztik opor-rengatik eta martxoaren 2ra arte egongo da.

Zeraingo bolari handia izan zen Endika Alustiza zenaren oroimenetan egiten den txapelketa honek sona dezenttea lortu du bolarien artean eta onenak bertan izango dira. Gainera, bolaleku erabe-

rrituan egingo den lehen txapelketa ofiziala izango da eta bolariak bolaleku berrian lehiatzearen zailtasuna izango dute.

Ion Muñoa



Ostatuko mus txapelketa

Otsailaren 28an, arratsaldeko 4etatik aurrera jokatu da herriko ostatuan urteroko mus txapelketa. Ondoren aforia ere izango da.

Aingeru guardako eguna

Martxoaren lehenengo egunean da Aingeru Guardako eguna eta egun horretan meza izango da goizeko 11etan ermittan.

Itzi Ugalde

Eider Algaba Gipuzkoako kros txapelkun

Pasa zen larunbatean jokatu-
zen Gipuzkoako kros txapel-
keta Hernanin. San Benito
Ikastolako neskek emaitza
oso onak lortu zituzten. In-
fantil mailan txapelkun gera-
tu zen Eider Algaba. Taldeka
ere lehiatu zuten eta 4. postua
lortu zuten. Hemen bi neske-
en lana azpimarratu behar da
beti izaten baitira deituak txap-
elketetarako, Maddi Gerriko
eta Uxue Arnaez.

Alebin maila ere emaitza
onak lortu zituzten. Enara
Cachok marka oso on bat
egin eta bere mailan bigarren
geratu zen. Beraz, azpitxapel-
kuna da Gipuzkoa mailan.
Berarekin batera Uxue Gar-
mendiak parte hartu zuen hau
pixka bat atzerago sartu zela-
rik helmugara.

Aitor Tello



Inauteriak

Otsailaren 23an atera ziren ikastolako txikienak aurtengo inauteriei kolore eta bizitasun pixka bat emanez. Denetik ikusi ahal izan zen. Beste urtetan zaharragoak ere irteten ziren baina gaur egun astelehenetan jai izaten dute inauteritako egun honetan.

Argazkian berriz orain dela urte batzuetako inauteriak nola bizi ziren ikus dezakegu.

Goiko ilaran: Ander Zubiarraín, Aitor Tello, Aitor Unanue, Aitzol Aranburu, Kepa Urdangarin, Ainara Sanchez, Patty Caballo, Izaro Aldanondo, Ainhoa Erauskin, Jon Aletxa, aurrekoa Moises, Luis Mari Aldanondo, Oroitz Aldasoso, Lierni Altuna

Behean: Mikel Tejedós, Ekai Irizar, Mikel Alonso, Joseba Arza, Harriet Arruabarrena, Maria Lasa, Idoia Esnaola, Aroia Badiola eta Koro (Andereñoa).

Areto futbola

Dagoeneko 18 partidu jokatu dituzte Errotaundiko mutilak. Lehen mailan jokatzen dute eta taldearen berri jakin nahian galdera batzuk egin dizkiogu taldeko kapitaina Aitor Aldasorori.

Gaur egun futbolk duen garrantzia ikusita, nola bizi du futbol aretoak?

Egia da futbolk duela pisu gehien eta zaila dela urtero taldea mantentzea baina azkenerako jendea lortzen da nahiz eta nahiko urri ibili.

Zenbateko taldea zarete?

Denera 10 jokalarik gaude baina aurtun entrenatzaile eta arduradun bat dugu. Honek beti ere segurtasuna eta seriotasuna ematen dio taldeari emaitzez aparte.

Jokatzeke maila polita dela nabarmena da, baina, zailtasunak ere izango ditu denboraldi bukaerako, ezta?

Bai, 16 taldeko maila batean gaude eta honek urte guztiko lana ondo egitea suposatzen du. Hasieran ez da arazo handirik izaten baina urtea aurrera dihoanean taldea murrizten joaten da eta bertan sortzen dira baxualdi gehienak.

Zein postutan kokatuak zarete?

Oraintxe 12. postuan gaude eta esan beharra daukagu kinka larrian gaudela baina gaur egungo puntuazioari ikusita behe-
rako toki horietatik ateratzea ez da hain zaila.

Horrelako egoerak lehenagotik ere bizi izan dituzue?

Taldeak 6 urte daramazki bizirik eta esan dezaket hasieratik bertan izan naizela eta aurtengoa izango dela zailtasun gehien daraman denboraldia baina oraindik asko geratzen da. Erdi-
kaldean bukatzeko asmoarekin gaude talde guztia.

Hurrengo jardunaldia noiz izango duzue?

Larunbat honetan jokatuko dugu Andoaingo Cash-Converters taldearen aurka. Pasa den astean etxean jokatu genuen Bera-Bidasoako taldearen aurka, beraz, oraingo honetan kanpora jo behar dugu.

Hurrengo urterako begira aldaketaren bat ba al duzue buruan?

Lehenengo iruditzen zait aurtengoa ahalik eta ondoen bukatu beharra dugula eta behin hori egitean orduan... Jende asko sartzen da taldean baina alde ere berehala egiten du. Arazo handienetariko bat horixe da eta horrek izango du garrantzia gehien datorren denboraldirako.

Erakusketa

Antsoategi Herriko tabernan argazkien erakusta zabaltzen hilaren 18tik aurrera.

Futbitoko 24 ordu

Maiatzaren 5ean eta 6n 24 orduko futbito txapelketa jokatuko da Lazkao kiroldegian. Oraingo honetan San Benito Ikastolako D.B.H 4. mailako ikasleek antolatuko dute.

Arropa zaharren bilketa martxan

Erabiltzen ez diren arropak edo zahartutakoak biltzeko zerbitzua eskaintzen hasi da Sasieta Mankomunitatea Idiazabalen. Arropak uzteko kontenedore bat jarri dute herrian, Apaiz etxearen alboko aparkalekuan. Ontzi horretara, janzteko arropak (kalekoak, barrukoak, kirola egitekoak...), etxeakoak (mantak, maindireak...), oinetakoak eta osagarriak (gerrikoak, diruzorroak...) eraman daitezke. Ontzi horretan ezin dira sartu alfonbrak, moketak eta garbiketako trpuak. Arropak poltsa itxietan utzi behar dira, ondoren, berrerabili eta birziklatzeko.

Horiek dira hain zuzen ere bilketaren helburua, arropen beste erabilpen bat ematea. Bildutakoa, Karitasek sortutako Oldberri kooperatibaren esku utziko du Sasieta. Enpresa horretan arropak sailkatu egiten dituzte. Egoera onean daudenak beharrez daudenei ematen zaizkie edo merkataritza justuko azoketan saltzen dituzte. Erabiltzeko balio ez dutenak, ehunak birziklatzen dituzten enpresei saltzen dizkiete.

Apaiz etxearen ondoan jarritako kontenedoreak segurtasun tapa bat du lapurretak saihestu eta umek minik hartu ez dezaten.

Aldaize

Lehenengo alea argitaratzekoan sortutako arazoak tarteko, Aldaize herri aldizkariaren lehenengo alea ez da iritsi herriko etxe guztietara. Illati euskara elkarteak jakinarazi du, bigarren alea apirilaren hasieran kaleratuko dutela. Ordurako arazoak konponduta egotea espero dute. Bigarren aleak, 20 orrialde izango ditu.

KZ gunea

KZ gunea erabili nahi duenak Pilarreneako tabernan eskatu behar du giltza. Goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak arte erabili daiteke ordenagailuen gela. Erabiltzaileak berak piztu eta itzali behar ditu ordenagailuak. Alde egiterakoan beste inor ez badago, atea itxi eta giltza tabernan utzi behar da berriro ere. Lo-



Toki Txokoko zubia bota dute

Agindutako moduan, Sanblasak bukatu eta berehala hasi dira erreka lanak. Toki Txokoko zubia Otsaileko hirugarren astean bota zuten. Plazakoari, kronika hau idazterakoan zutik zegoen, ere ez zaio asko geratzen. Argazkian ikusten den bezala, dagoeneko zubia bota ahal izateko prestaketak hasita daude.

rea Ezioleza arduraduna, ostiral arratsaldean baino ez da egoten KZ gunean.

Sinadura bilketa

Batasunak deituta, 'Ez Espainiari, bai Euskal Herriari' goiburua duen agiria izenpeztzeko sinadura bilketa egin zen Idiazabalgo plazan otsailaren 14an eta 15ean. Agiriak Espainiak Euskal Herriarekiko duen jarrera salatzen du 14 puntutan.

Hitzaldia

Jubilatuak Elkarteak antolatuta, Josetxo Zufiaurrek hitzaldia emango du martxoaren 9an, asteartea, 19:00etan. Zufiaurrek 'Ikustelegrafoa, azken linea Euskal Herrian 1850 inguruan' gaiari buruz hitz egingo du.

Jubilatuak Elkarteak bazkideek urteroko kuota ordaintzeko epea irekita dute.

Xabier Urteaga

Kirolak

Emailtzak

Zelaako kiroldegian aritzen diren taldeek, aurreko asteburuan emailtza hauek izan zituzten.

Saskibaloia. Mutil alebinak: Aita Iparragirre 12 - Ugare 66. Neska alebinak: Aita Iparragirre 73 - Lizeo 4.

Esku pilota. Benjaminak (4. Maila): Aita Iparragirre 2 - San Benito 7. Benjaminak (3. Maila): Aita Iparragirre 2 - Laiotz 7.

Mahai tenisa. Aita Iparragirre 0 - La Salle 3

Asteburuko (larunbata 28) partidak

Saskibaloia. Mutil benjaminak, Zelaan 9:30ean San Benitoren aurka. Neska benjaminak, 10:30ean San Benitoren aurka. Mutil alebinak, Lazkaon 9:30ean San Benitoren aurka eta neska alebinak, Zelaan 9:30ean San Benitoren aurka.

Areto futbola. Neska kadeteak, Zelaan 11:30ean Udarregi taldearen aurka.

Esku pilota. 3. mailako benjaminak, Seguran 10:45ean.

Atletismoa. Alebinak Ordizian.

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04

kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44

kale Nagusia 25 ORDIZIA





Itsasondo

Cristina Gomezen sendiaren esker ona

Lerro honen bidez Cristina Gomez-en sendiak bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkie laguntza eskaini dioten herritar eta erakunde guztiei.

Une latzak dira familia-erentzat, lau urte luzeetako minbiziaren aurkako borrokaren ondoren Cristina galdu berri baitute. Cristina sendatu zedin gaurregun eskuragarri zeuden tratamendu eta medikamentu guztiak erabiltzea-

rrer, elkartasun eta laguntza deia luzatu behar izan zuten, eta lortu diren 42.000 euroei esker, posible izan da Cristina-naren tratamendua finantzatzeko beharrezkoak ziren gastuei aurre egitea.

Cristina sendatzea ezinezkoa izan bada ere, ahal zen guztia egin izanaren lasaitasuna dute beraiekin. Bihotz-bihotzetik eskerrak eman nahi dizkizute Cristina sen-

Mediku etxeko etxebizitzaren alokairua

Udalak Nagusia 9. zenbakian (Mediku etxean) 2. solairuan duen etxebizitza errentan uzteko lehiaketa jarri du martxan.

Etxebizitza urtebeterako alokatuko da, eta bost urtera arte luzatu ahal izango da kontratua. Ordaindu beharreko errenta 1.500 euro urteko izango da, hilean 125 euro.

Guzti honi buruzko informazioa eta dokumentazioa nahi duenak Udaletxean izango du eskuragai.

Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 10ean amaituko da.

datzeko esperantza bizirik mantentzeko elkartasuna eta laguntza azaldu duzuen guztiei, elkartasun horrek une

hauetan aurrera egiteko indarra eta kemena ematen baitie.



Gaintza

Urtarrilean bi haur jaio dira

Nahiz eta orokorrean herri txikietako biztanleria behera doan, oraingo honetan behintzat badugu pozteko arrazoia gaintzarrok. Joan zen hilean, urtarrilean, bi haur jaio baitira gure herrian. 2, eta biak mutilak. Bat Oteñen eta beste Aranburun. Beraz zorionak, Frantzisko eta Arantxa

eta Mikel eta Ane. Eta ongi-etorriak, Iker eta Josu!

Uema kanpaina berri bat hastekotan da haur jaioberrien hizkuntza transmisioa ziurtatzeko. Oraindik ere kanpaina bera zehazteko badago ere, Udaletxetik mezu hau bidali nahi die herritar berriei:

Emakumezkoen afaria martxoaren 6an

Azken urteotako usadioarekin jarraituz, aurten ere Emakume Langileen eguna badatorrela eta, herriko emakumezkoek ospatzeko asmoarekin dabilta. Ospakizuna martxoaren 6an izango da, larunbata, astelehena baino egokiagoa izango baita jendea biltzeko. Beraz, hemendik animatzen zaituztegu herriko emakume guztiok Kale-Txikin egingo den afarira etor zaitezten. Izena emateko epea martxoaren 4ra arte izango da Kale-Txikin bertan. Afarirako ordua, berriz, iluntzeko 8,30ak-9ak aldera izango da.

*Lehenengo Zorionak denon izenean.
Gero eskaera bat euskararen gainean.
Geroa ziurtatu nahi dugun heinean.
Beti euskaraz egin bere aldamenean.
Euskara(z) bizi dadin etorkizunean.*

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



Jauregi
TOLDOAK

BEASAIN

943 88 02 43 - 943 88 01 33



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

Atsedeen Toki irekita

Abuztua ezkerotik itxita egon ondoren, joan den igandean ekin zion berriro martxari Atsedeen Tokik. Bere ustiapena nori eman erabakitze-ko, aurreko aleetan adierazi dugun modun, Udalak egin duen lehiaketan, Mari Karmen Intsausti Elorza izan da aukeratua.

Aldi berean, jubilatuen junta berria ere osatu dela adierazi beharrean gaude, Xanti Munduate idazkaria, Juan Beloki diru-zaina eta Maria Eskisabel bokala ziren aurreko juntako kideak. Orain, junta berri honetan kide berriak ageri dira: Olatz Guridi da lehendakaria, Pili Imaz bere atzetik, Joxe Bikuña idazkaria, Niko Kaiero diru zaina, jarraian Pilar Imaz, Joxe Mari Aldasoro, Ana Mari Munduate eta Xabier Dorronsoro bokalak.

Jubilatuentzat txapelketak

Jubilatuen elkarteak, Atsedeen Tokik antolatuta eta Udalak

babestuta, martxoaren 2an ekingo zaio aurtengo txapelketari. Parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da bazkide izatea. Izena emateko epea otsailaren 29an amaitzen da Atsedeen Toki bertan izena ematerakoan zertan parte hartu nahi den esan behar da. Gogoratu, apuntea ematean karneta eraman behar dela seilua jarri ahal izateko.

Txapelketen egutegia duzue jarraian: **Martxoak 2:** goizeko 11etan bote txapelketa; arratsaldeko 4etan mus txapelketa 4 erregetara; **Martxoak 4:** goizeko 11etan zapo txapelketa eta arratsaldeko 4etan seiko urrea txapelketa; **Martxoak 6:** goizeko 11etan toka txapelketa eta arratsaldeko 4etan tute txapelketa; **Martxoak 9:** arratsaldeko 4tan eskoba txapelketa; **Martxoak 11:** arratsaldeko 4etan punttu txapelketa; **Martxoak 13:** arratsaldeko 4etan mus txapelketa 8 erregetara.

Doltza Barandiaran



'Ataundik, Espainiari ez!' aldarrikapena

"Euskal Herriak bizi duen une garrantzitsu honetan eta Espainiar Estatuan martxoaren 14an egingo diren hauteskundeen aurrean, ezkertiar eta abertzale sentitzen diren herritarrek Espainiar inposaketari behingoz ezezko tinko bat emateko garaia dela", irizten dute. "Euskal Herriaren eskubideen ukazioak sorrarazitako gatazka eta sufrimenduak gaindituz, herri honen hitza eta erabakia errespetatzeko, autodeterminazioaren alde dagoen ororen elkarlana ezinbestekoa" dela azpimarratzen dute.

Ikastaroak 2004

Sukaldaritza ikastaroa, Iker Markinez Kuko jatetxeko ki-dearen esku egongo da, 26 ordu iraungo ditu. Larunbatetan izango da 11:00etatik 13:00etara. Matrikula: 35 euro.

Talla egurrean, Jabier Arrietaren eskutik, 30 ordu, ostiral arratsaldeetan 6,30etatik 9etara. Matrikula: 50 euro.

Berrikuntza aurtengoan **Lehen Sorospeneko ikastaroa** izango da, Joseba Gorostizaren eskutik, astean 30 ordu. Matrikula: 40 euro.

Sendabelarren inguruko ikastaroa Zorion Insaustik erakutsiko du, 14 ordu iraungo ditu. Astelehen, astearte edo ostiraletan 18:00etatik 20:00etara aukeran izango da. 40 euro ordaindu behar dira.

Ikastaro guztiak, sukaldaritzakoa ezik, martxoaren lehenengo astean hasiko dira. Taldea osatzeko eta antolatze-ko, gutxiene-ko kopurua izan beharko da. Partaide bakoitzaren kontura joango da ikastaroari dagokion tresneria eta materiala.

Matrikula egiteko deialdia

Otsailaren 27ra bitarte, 2002an jaiotako haurren izen ematea egingo da Joxemiel Barandiaeran Herri Ikastetxean. Horretarako ezinbestekoa da familia liburua, txertuen agiria eta kontu korrontearen zenbakia aurkeztea.

"Izan zaitez odol emaille"

Odol emailleen elkarteak "Odol premiak ez dauka etenik, izan zaitez odol emaille" lemapean, 18-65 urte bitarteko guztiei deia luzatzen die, joan zen otsailaren 18an bezalaxe, ekainaren 16an eta urriaren 27an ere Gabillenen egingo diren odol ateraldiara agertzeko.

Arropa zaharrak biltzeko zerbitzua

Sasieta Mankomunitateak arropa zaharrak jasotzeko kontenedore berri bat jarri du gure herrian. Kontenedore hau Joxemiel Barandiaran eskolan kokatu da.

Astebukaerako neurketak

Gure bi ordezkariak etxean jokatu dute astebukaera honetan. Ataun Avia Sprin Izagirre mendean hartzen saiatuko da. ostiral 21:30ean hasiko da neurketa. Neskek aldiz, larunbatean jokatu dute 18:30ean, Ataun Bitor Jatetxea Altzakoak taldearen aurka. Partida hauetan erabiliko diren baloiak Harria Gresca eta Munduate Aseguruak etxeek babesten dituzte.

Futbolaz gain, eskupilotan ere, Infantilen Gipuzkoako Errendimendu Txapelketa jokatu dute astebukaera honetan. Gure ordezkariak 3 eta 4 postua lortzeko lehiaren parte hartuko dute, Usurbilgo Andatzperen aurka. Ataun Kirol Elkartearen izenean, Jon Ander Albisu eta Jon Arratibel herritarrek eta Zaldibiko Alex Sukia dira txapelketa honetan parte hartu duten gazteak.





Odol emaleen elkarteak

Mutiloa, Zerain eta Segurako odol emaleak eskertzeaz gain, ondorengo elkarte eta denden laguntza azpimarratu nahi dute: udala, Zopajale elkarteak, Aranburu harategia, Erosle, Beheko panaderia, Kabaña frutadenda, Imaz jatetxea eta zenbait pertsona anonimo. Bide batez, apirilean, abuztuan eta abenduan izango diren odol ateraldiak gona bidatu nahi dituzte herritarrek eta bereziki gazteak.

Aguazilaren erretiroa

30 urtetan aguazil lanean aritu den Prontxio Ariztimuñok erretiroa hartu du otsailean. Udalak eta udal langileek, gaur, otsailak 27, lagunarteko bazkariarekin agurtuko dute Ixkiña jatetxean.

Aldi baterako kontratazioa.

Eginkizun anitzeko peoia kontratatatu nahi du udalak 6 hilabeterako. B-1 gida baime-na, igeltseritza, elektrizitate, iturgintza eta lorazaintza eza-gupen minimoak eta asteburu batzutan lan egiteko prest egotea eskatzen da. Curriculumak martxoaren 5era aurkeztu behar dira.

Futbola

Asteburuko emaitza: Jubenilak: Baskonia 1-2 Segura. **Asteburuan etxean:** Infantilak: Aizkorri - S.Herrera (zapatuan, 11:00etan). **Jubenilak:** Segura-Gure Txokoa

Atsedeneko finalak

Jubilatuak elkarteak antolatutako karta txapelketen finalak, otsailaren 20an jokatu ziren. **Brixkan:** 1go: Eulogio Albisu eta Eduarda Telleria (Xabin Aldanondoren ordezkari); 2go: Antonio Aldanondo eta Joxe Luis Etxeberria. **Puntuak:** 1go: Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde; 2go: Antonio Aldanondo eta Joxe Luis Etxeberria. **Tutean:** 1go: Antonio Aldanondo eta Joxe Luis Etxeberria; 2go: Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde. **Musean:** 1go: Antonio Aldanondo eta Joxe Luis Etxeberria; 2go: Joxe Urbizu eta Sebastian Garaialde.

Udal aurrekontuak

2.170.000 euroko kontusaila

Pasa den otsailaren 18ko osoko bilkuran onartu zituen udalak 2004rako aurrekontuak. Bi proposamen azaldu ziren, EA-EAJ koalizioarena eta Harresi plataformarena. Aurkezpenen ondorengo bozketan koalizioarena atera zen aurrera. 2.170.000 euroko aurrekontua da udalak onartu duena. Mikel Areizaga, alkateak dioenez, ez da dokumentu itxia eta urtean zehar aldaketak izan ditzake. Aurreikusitako gastuak dituzue ondoko koadroan. Gastu hauei, Diputaziotik, zerga eta tasa mota ezberdinetatik, Eusko Jaurlaritzatik eta beste sarrera batzutatik datozen diruarekin aurre egingo zaie.

Hirigintza	1.124.920 euro
Administrazio orokorra	158.750 euro
Turismoa	126.750 euro
Ur gestioa	116.400 euro
Hezkuntza	73.500 euro
Ongizatea	73.030 euro
Maileguak	69.000 euro
Kirol instalakuntzak	67.900 euro
Ekintza sozio-kulturalak	67.800 euro
Garbiketa zerbitzuak	61.500 euro
Eskualde garapena	57.100 euro
Udaltzaina	47.500 euro
Nekazaritza	45.200 euro
Kultura	34.000 euro
Osasuna	13.300 euro
Musika eskola	13.000 euro
Liburutegia	12.800 euro
Hilerria	3.850 euro
Kargu politikoak	3.400 euro

(zapatuan, 16:00etan). **Alebinak:** igandean 10:00etan, hasita lau partidu. Aizkorri-Ostadar, 11:00etan.

Labur-labur

● **Ikastaroa.** 'Baserriko produktuen elaborazioa'. Segura, Mutiloa eta Zeraingo udalek antolatuta. Hiru egunetako ikastaroa, bazkalondoren, egun bakoitza herri bakoitzean, martxoaren erditik aurrera. Izen ematea eta informazioa udaletxean.

● **IV. Lore eta landareen udaberriko azoka.** Martxoaren 21ean ospatuko den azoka antolatzeko 3. bilera burutu da aste honetan.

● **IX. Iparra-Hegoa.** Martxoaren 22tik 28ra burutuko den kultur astea Araba lurraldeari eskainiko zaio. Asteburuko solasaldietan, Arabako egoera kultural, sozial, ekonomiko eta politikoaren berri izango da. Ekitaldi nagusiak asteburuan.

● Pelota eskolaren bilera.

Inge Olanoren ardurapean dabilen haurren gurasoentzat bilera deia martxoaren 4rako, 19:30ean Kultur etxean. 30en bat haur dabilta talde ezberdinetan banaturik.

● Eneko Agirrezabal.

Otsailaren 28an, estatu mailako kros txapelketan parte hartuko du Santiago de Compostelan. Otsailaren 22an, Durangon 1.500 metroan gutxienezko marka lortu ondoren (4'04"), estatu mailako pista estaliko 1500 ean parte hartuko du datorren asteburuan Zaragozan.

● **Soldadu kornetajoleak.** Martxoaren lehen astean hasiko dituzte Aste Santurako entsaioak.

● **Erabilitako arropen edukinontzia.** Sasietakoek jarri

berria dute Zerkaldean arropa zaharrak birziklatu eta bererabiltzeko kontenedorea.

● **Arkitekto berria.** Udaletxeko arkitekto berria Juanma Saez, donostiarra da eta Ordiziako udaletxean ere aritzen da. Aurrez zita eskatuta, astelehenetan 16:00etatik 18:00etara eta ostegunetan 12:00etatik 14:00etara egon daiteke berarekin.

● **Martxoak 8.** Emakumeen egunerako, antzerkia eta afaria antolatzeko asmoa du Udalak.

● **Ainara Goenaga** herritarren erakusketa. Ehunen bat pintura, marrazki eta eskultura ikusgai Ardiarran otsailaren 27tik martxoaren 14ra.

Joseba Telleria



Agustin, herriko plazan eskuarea egiten.

Agustin Legorburu saritua

Gipuzkoako merkatal ganbarak 'Bizitza osoa artisautzari eskainia' XIV. edizioan, beste lau artisau gipuzkoarren artean, Zerain-sagastiko Agustin Legorburu saritu du. Agustin, eskuaregilea, sega, aitzur, aizkora eta era guztietako egur kintengilea ere bada. Diploma banaketa, gaur, otsailak 27rako dago iragarria.



1.000 euro eta txapelak Arriarana

Euskal Herriko txoko askotatik etorritakoak ziren Argi Berri Elkarteak antolatutako XXVII. Mus Txapelketan parte hartu zuten 92 bikoteak, baina azkenean sari nagusia Aitor Mendizabal eta Iñaki Aranburu arriarandarrek eraman zuten. 7 mus partida jarraian irabazi behar izan zituzten horretarako.

Herrikoak 35 bikote izan ziren eta hauen artean Jokin Perez eta bere kide Peio Martin. Hirugarrenak izan ziren hauek eta 250 euro patrikeratzeaz gain bi txuleta jaso zituzten. Argi Berriko lehen bikotearentzat ere izan zen saria, legatz eder bat, eta berau Manolo Gorospe eta Pruden Santoyorentzat izan zen. Zazpigarrenak izan ziren hauek.

Irabazleek Rufino Hernandez eta J.Miguel Hernandez beasaindarrak (argazkian finalistak Argi Berriko presidentearekin saria banatzerako orduan) izan zituzten arerio finalean. Saria elkarren artean banatzea adostu ondoren txapelak

zituzten jokoan. Arriarandarrak finago ibili ziren azken partida honetan eta 3-0ko emaitzaz gailendu ziren.

Hirugarren, aurretik aipatu Peio Martin eta Jokin Perez izan ziren, laugarren Elias Del Villar eta Inazio Egirendia tolosarrak, bosgarren Imanol Aierza eta Unai Iruin tolosarrak, seigarren Manolo Gorospe eta Pruden Santoyo ordiziarrak, zazpigarren Jose Manuel Zabaleta eta Mikel Barberia leitzarrak eta zortzigarren Begoña Eskisabel eta Asier Etxarri ormaiztegiarrak.

Arkume eta antxume zozketak ere izan ziren. Jarraian zenbaki sarituak: arkumeak: 3.500, 1.176, 1.826, 3.599 eta 5.325. Antxumeak: 5.705, 3.790, 4.054, 2.219 eta 2.808. Hauetako baten jabe bazara deitu 943-888074 zenbakira edota agertu Argi Berri Elkartera (Bustuntza auzoa).

Aitor Calviolo

Futbol txapelketa

Asteburuan abian jarriko da Koadrila Arteko XXV. Futbol Txapelketa. Berezia izango den urteurren honetarako 11 taldek eman dute izena eta denak denen aurka aritu beharko dute azkenik lau lehenek final-aurreak jokatzeko. Taldeak honakoak: Ferro, Harrike, Wispack, Badago, Tximista Sagardotegia, Sarri King, Irrintzi, Urbitarte Sagardotegia, Bustunmira, E.R. Matxain Ileapaindegia eta Morapios. 25. urteurrena ospatu asmoz batzorde berezia osatuko da eta badira ideia pila buruan, horien artean finaleko egunerako urte hauetan guztietan aritu diren jokalariekin harremanetan jarri eta beterranoen partida antolatzea. Ohiko bazkarian ere denek izango lukete lekua.

Antzerki Garaia

Martxoan sartzearrekin batera Txalo Taldeak 'Pakita' antzezlan-taularatuko du antzerki garaia barruan hilaren 12an. Ohi bezala 22:15etik aurrera izango da Herri Antzokian eta oraingoa gaztelaniaz izango da. Sarrerak aurretik salgai Barrena Kultur Etxean (7 euro).

Zenbat gara Ordizian?

Orain 20 bat urte 10.000 biztanle baina gehiago baginen ere, azken urteetan beherantza joan da kopuru hori eta egun, 2004ko urtarrilaren leko datuak aintzat hartuta, 8.945 gara. Aipatu 2003an 77 izan zirela herrian jaio zirenak eta hildakoak, berriz, 104. Ordiziara etorritakoak 392 pertsona izan ziren (hauetatik 146 atzerritarrak) eta kanpora joandakoak, aldiz, 363 (hauetatik 52 atzerritarrak).

Urdin Pub-a erreta

Otsailaren 13ko goizaldean kea somatu bizilagun batek eta suhiltzaileei berehala deituta ezer larririk gertatu ez bazen ere, Urdin Pub-a erabat belztuta geratu zen. Andre Mari Kanean dagoen lokala hartu berri zuten gazte batzuk alokairuan eta ez dute zorte handirik izan, ez. Musika ekipoko kableek su hartu eta taberna guztian zehar barreiatu zen. Su-garrik izan ez bazen ere dena belztuta geratu zen. Zorionez bizilagunek ez zuten kalterik jasan.

Kimetzek antolatutako ekintzak

Jarraian emakumeen eguna dela eta Kimetz taldekoek prestatutako egitaraua:

Martxoak 2: Hitzaldia Barrena Kultur Etxean 18:00etan. Gaia: 'kanpotik etorritako emakumeak: zailtasun eta lorpenak'.

Martxoak 5: Urrup Antzerki taldearen 'El aniversario' lana antzeztuko du 19:00etan Herri Antzokian.

Martxoak 8: kafe-kontzertua Amaia Zubiriarekin 16:00etan Barrena Kultur Etxean.

Jakintza abesbatzaren diskoa

Jakintza Ikastolako abesbatzak kaleratu berri du bere lehen diskoa. Honen aurkezpena joaneko asteazkenean, otsailak 25, egin zen. Honen berri zabalagoa izango duzue hurrengo alean.

Etzi jokatuko da Gabiriako VI. Rallysprinta

Igande honetan, otsailaren 29an, du urteroko hitzordua Euskadiko automobilismo txapelketaren baitan puntuagarria den Gabiriako rallysprintak. Sorreratik berau izaten baldin bazen denboraldia irekitzen zuen proba, aurten autoek jada pare bat aste badaramatzate lanean, baina egutegian erabat sendotuta dagoela frogatu du oraingoan ere VI. Gabiriako Rallysprintak.

Ohiko legez, Zuzula base-riaren paretik Motxorro bi-tarteko bidezatian jokatuko da lasterketa, GI-3540 errepidean. Bi joan-etorri egin beharko dituzte partehartzaileek, seina kilometro eta erdiko lau alditan, guztira 26 kilometroko ibilbide kronometratua osatuz.

Arratsaldeko 3etan ekingo zaio rallysprintaren seigarren edizioari, baina mugimendua goiz-goizetik izango da. Esaterako, berribilen behaketa teknikoak egiten goizeko 10etatik aurrera hasiko dira, Korta jatetxeko aparkalekuan. Lastergunea ere eguerdi aurretxoan itxiko dute, eta baimena dutenek baizik ezin

izango dute erabili.

Ikuskizunari dagokionez, partehartzaileetan sekulako errekorra: 69 gidari-laguntzaile bikote. Onartuen zerrendak dienez, lehen postuen bila etorriko diren izen ezagunez gain gazte hasiberriak ere ugari izango dira, rallyetarako afizioak duen erakarmenaren adierazle. Gazte mailako euskal rallysprint txapelketarako ere balioko du, neurri berean. Probako irabazle orokorrak 400 euroko saria jasoko du, bigarrenak 300, klase bakoitzeko garaileak 110na eta junior mailako txapeldunak 100. Eguraldiak batere laguntzen badu bikaina izateko osagai guztiak ditu aurtengo edizioak.

Bestalde, kirol zita honek beste ospakizun bat ere gogorra ekarri nahi du. Orain gutxi transplante baten zain zegoela hil zen Joseba Sanchez le-gazpiarraren omenez oroitarri bat ipiniko dute San Lorentzo ermitaren inguruan, eta proba hasterako inaguratuko dute.



Lorea Ezio Lazak irakatsi die erabiltzaileei internetaren munduan nabigatzen.

KZgunean aldaketak eta balantzea

Pasa den urritik martxan izan den internet erabiltzaileen gunean zenbait aldaketa burutu dira, ikastaroei dagozkienak batik bat. Batetik, eta garrantzitsuena, ia ez dela ikastaro gehiago emango, azken deialdian ez baitzuen inork izena eman. Hori dela eta, aurrerantzean ez da iraunkorki tutore-rik egongo Gabirian; asteen behin, ostegunetan, lau ordura-ko etorriko da Maria arduradun berria erabiltzaileek izan di-tzaketen beharrei kasu egitera.

KZguneak internet zerbitzua eskaintzen jarraituko du ha-la ere. Ordutegia astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik 14etara dago zehaztuta, eta udal bulegoetan eskatu beharko da giltza. Tutoretza izango den egunetan bi orduko ikasgai laburrak ere eskainiko dira, arlo jakin batzuetara lerratuta. Informazio gehiagorako udaletxera edota arduradun berria-rengana zuzendu daiteke (Ordiziako KZgunera, 943-884379).

Urriaren 17an zentrua ireki zenetik 12 ikastaro eman di-ra guztira, eta horietan 32 erabiltzailek jardun dute, gehie-nak hutsetik hasita. Ia hamarretik zortzi emakumezkoak izan dira, eta adinaren arabera 35-44 urte bitartekoak nagusi. 65 urtetik gorako 7 lagun ibili dira ikastaroetan. Era-biltzaileen erdiak, gutxi gora-behera, lanean zihardutenak dira, eta hurrengo gizarte sektore haziena etxekoandreena zen.

Aimar Maiz



VI. Rallysprinta ikustera gonbidatuta zaudete denok!

KORTA

ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

Sagardotegiko menua
Menu bereziak
Eguneroko menua
Karta
Mariskadak, haztegi propioak

☎ 943 88 71 86

GABIRIA

Kultur astea

Martxoaren 1etik 7ra bitartean, Kultur astea ospatuko da herrian. Adin guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dira astean zehar.

Martxoak 1, astelehena:

16:00etan: Sukaldaritza ikastaroa: 'Tradiziozko janariak'. Izen ematea, martxoak 1 baino lehen egin behar da udaletxean.

17:00etan: Ipuin kontakizunak herriko haur eta gaztetxoentzat, Kometa ludotekan, Kutxaren laguntzaz.

Martxoak 2, asteartea:

17:00etan: Zuhaitz eguna, Arrietako errotondan.

Martxoak 3, asteazkena:

18:00etan: 'Rudi txerria' filma, ludotekan, Kutxaren laguntzaz.

19:00etan: Javier Fernandez diaporama emanaldia: 'Olaberriko artzainak: tradizioa ala ogibidea?', udal aretoan.

Martxoak 4, osteguna:

16:00etan: Sukaldaritza ikastaroa.

18:00etan: Botika naturalei buruzko hitzaldia. Sendabelarren printzipio aktiboak lortu eta hauen erabilpenaz arituko da Itziar Salegi, Udal aretoan.

Martxoak 5, ostirala:

17:30ean: Txalaparta ikastaroa, udaletxean, 9 urtetik aurrera. Izen ematea udaletxean eta ludotekan egin behar da, martxoak 4 baino lehen.

18:00etan: Talo ikastaroa eta dastatzea, Arkupe elkartearen. Izen ematea martxoak 4 baino lehen.

Martxoak 6, larunbata:

VII. Joxe Kerejeta memoria bola txapelketa. Izen ematea 10:00etatik 11:30era.

17:00etan: Herriko gaztetxoek zuzendutako 'Inaxitoren ametsak' antzerkia, udal pilotalekuan. Kutxaren laguntzaz.

17:00ean: Hitzaldia: 'Memo-



Herrialdeen eguna martxoaren 7an

Kultur astearen amaiera ekitaldia Herrialdeen egunak emango dio. Jarraian duzue egitaraua: **11:00etan:** Meza eta ondoren 'Zeba' abesbatzaren emanaldia. **12:00etan:** Herrialdeen eguneko sarrera banaketa. **12:30ean:** Herrialdeen egunaren irekiera, udal pilotalekuan. **16:30ean:** Castilla, Nafarroa, Extremadura, Galizia eta Euskadiko musika, dantza eta emanaldiak, udal pilotalekuan.

ria, komunitatea eta nortasuna.- Nortasunaren eraiketa' Aranzadi Zientzia Elkarteko Juan Moraren eskutik, Udal aretoan. Gazteleraz.

21:00etan: Bertso afaria Etxe-Zuri sagardotegian Jon

Maia eta Sustrai Kolina bertsolariekin eta Krispin Dolot trobadorearekin. Afariaren prezioa, 20 euro. Udaletxean, ludotekan, Zezilionen eta Etxe-Zurin eman behar da izena, martxoak 5 baino lehen.

Emakumezkoen eguneko afaria

Zaldibiako Damixelak emakume taldeak, martxoaren 8an, Joxepane Herri Ostatuan afaria antolatu du. Afal aurretik poteoa egingo dute eta afaria 9etan izango da. La-

miak soka taldearen musikak alaituko du afalondorena. Iamiak taldea lau emakumezko osatzen dute. 3 biolin eta bilotxelo dira erabiltzen dituzten musika tresnak.

Afarirako txartelak plaza-ko 3 tabernetan daude salgai Dena den, Damixelak-etik adierazi dutenez, afaltzera joaten ez direnek ere izango dute musika saioa entzuteko aukera.

Gazteen asteburua

Gazte taldea martxoaren 5 eta 6ko asteburuan ekintzaren batzuk antolatzekotan da. Egitaraua oraindik zehazteko dago baina aurreratu genezake, martxoaren 5ean, ostirale-

an, Kutxaren bitartez, Angel Cuerdoren 'Zambeze, ibai basatia' diapositiba emanaldia eskainiko dela.

Alex Sukia

Ataun Kirol Elkartearen ize-nean jokatzeko ari da Alex Sukia, pilotako Gipuzkoako Errendimendu Txapelketa. Infantilen mailan dabil, Jon Ander Albisu eta Jon Arratibeekin batera. Asteburu honetan 3. eta 4. postua lortzeko lehia jokatzeko dute.

ZINEA

GOIENIZ:

Martxoak 11:
'Bienvenidos a Belleville',
 Usurbe Antzokian,
 21:00etan.

BEASAIN:

'Looney Tunes',
 otsailak 28, Usurbe
 Antzokian, 17:00etan.
 Gazteleraz.

**'Superagente Cody
 Banks'**, martxoak 6,
 Usurbe Antzokian,
 17:00etan. Gazteleraz.

'El señor de los anillos'.
 Otsailak 27: 22:15.
 Otsailak 28: 19:30-22:15.
 Otsailak 29: 19:30-22:15.
 Martxoak 1: 19:30-22:15.

GOIENIZ

'Bienvenidos a Belleville'

Sylvain Chomet
 (Fran-Kan-Belgika, 2002)

Champion trenekin obsesio-
 natutako ume bat da eta amo-
 narekin, Mme Souzarekin, bi-
 zi da. Bere ase ezintasuna
 guztiz aldatuko da amonak bi-
 zikleta bat oparitzen dionean.
 Azkenean, Frantziako Tourre-
 ran parte hartu ahal izango du,
 baina lehen egunean lasterke-
 tan dihoala bahitu egingo du-
 te. Mma Souza eta Bruno ize-
 neko txakurra ez daude geldi
 egiteko prest eta Belleville hi-
 rira joango dira, mutila aska-
 tzera... ipuin fantastiko eta
 zentzugabea zirudiena, pixka-
 naka thriller misteriotsu
 bihurtuko da.

hitzaldiak

BEASAIN:

Martxoak 9, Asmubek anto-
 latuta, 'Explicando la reali-
 dad desde el género: desi-
 gualdad, violencia, invisibi-
 lidad de la mujer...' gaiari
 buruz arituko da Ana Txu-
 rruka, 18:00etan, Udaletxeko
 Batzar aretoan.

Martxoak 10, Asmubek
 antolatuta, 'Hombres y mu-
 jeres. ¿Envejecimiento dife-
 rente?' gaiari buruz hitz
 egingo dute ICTeko teknika-
 riek, 17:30ean, Udaletxeko
 Batzar aretoan.

ORDIZIA:

Martxoak 2, Kimetzek an-
 tolatuta, 'Emakumezko etor-
 kinak: zailtasunak eta lorpe-
 nak', Koro Erdoziaren (SOS
 arrazakeria) eskutik,
 18:00etan, Barrenan.

OLABERRIA:

Martxoak 4, Botika natura-
 lei buruzko hitzaldia, Itziar
 Salegiren eskutik, Bikario-
 etxean, 18:00etan.

Martxoak 6, 17:00etan,
 'Memoria, komunitatea eta
 nortasuna.- Nortasunaren
 eraiketa', Aranzadi Zientzia
 Elkarteko eskutik, Udal
 aretoan.

dantza

ZERAIN:

Otsailak 29, Erromeria eli-
 za atarian, 18:00etatik
 20:00etara.

ikusentzuneakoak

OLABERRIA:

Martxoak 3, Javier Fernan-
 dezen diaporama emanaldia,
 Bikario-etxean, 19:00etan:
 'Olaberriko artzainak: tradi-
 zioa ala ogibidea?'.

bertsoak

BEASAIN:

Otsailak 27, Ekaitz Goiko-
 etxea eta Iker Zubeldia, Al-
 kartasuna Lizeoan,
 21:00etan.

OLABERRIA:

Martxoak 6, Bertso afaria
 Jesus Mari Irazu eta Sustrai
 Kolinarene eskutik, Etxe-Zuri
 sagardotegian, 21:00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Cuesta
 (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Otsailak 28-29: Rekalde
 (Plaza Nagusia, 10 - Ordizia). 943 882628.

Martxoak 6-7: Urbizu
 (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.



10. Kimetz ipuin lehiaketa

Ordiziako Kimetz Emakumeen Kultur eta Gizarte taldeak, 10. ipuin lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu. 18 urtetik gorako edonork parte har dezake bertan. Lanak hori bai, inon aurkeztu gabeak izango dira. Gaia librea izango da. Gutxienez 5 eta gehienez 10 orriko lana izango. Euskaraz nahiz gazteleraz. Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea kontuan edukiko du epaimahaiak.

Lan bakoitzeko hiruna kopia bidali behar dira, mekanografiatuta, espazio bikoitzean eta orriak alde batetik idatzirik. Textuak izengoitiz izenpetuko dira eta kartazal itxi batean kanpoaldean jarriko dira kontaketaren izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

Lanak apirilaren 15a baino lehen bidali behar dira Ordiziako Barrena Kultur Etxera (Nikolas Lekuona plaza, z/g), Kimetz ipuin lehiaketarako direla adieraziz.

Epaimahaia literatur munduko adituek osatuko dute. Sariak ekainean banatuko dira. 600 euroko bi sari banatuko dira, euskarazko atalean eta gaztelerazkoan. 150 euroko akzesita ere banatuko da, emakumezko batek idatzitako lanik onenarentzat. Aurten dena den, sari berezia banatu nahi du Kimetzek, lehiaketaren 10. urteurrena dela eta: ordiziar onenarentzat 200 euroko saria dago zain.

antzerkia

BEASAIN:

Otsailak 27, Antzerki Garaia: Kanpingags taldearen 'Bazen behin... gutxi gora behera', Usurbe antzokian, 22:15ean. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.

OLABERRIA:

Martxoak 6, 'Inaxitoren ametsak' antzerkia, udal pilotalekuan, 17:00etan.

ORDIZIA:

Martxoak 5, Urrup antzerki taldeak Chejovren 'El aniversario' lana aurkeztuko du, Herri antzokian, 19:00etan. Antolatzailea: Kimetz.

musika

ORDIZIA:

Martxoak 2, Zegamako Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Herri antzokian, 19:00etan, Musika Eskolak antolatuta.

Martxoak 8, Kafe kontzertua Amaia Zubiararekin, 16:00etan, Barrenan. Antolatzailea: Kimetz.

Tobera Musika Eskolako kontzertua Ordizian

Martxoaren 2an Ordiziako Herri antzokian Zegamako eta Segurako Tobera Musika Eskolakoek kontzertua eskainiko dute, arratsaldeko 7etan. Bertan parte hartuko duten musikariak hauek dira:

Txistulari taldea: Bakarne Larrea, Joseba Olaziregi, Aritz Olaziregi, Iñigo Atxa, Unai Armendariz eta Nagore Gorrotxategi.

Piano hirukotea: Joane Urzelai, Lierni Ortiz eta Josune Azurmendi.

Gitarra taldea: Aitor Imaz, Jokin Intxausti, Xabier Suarez, Ibai Arrizabalaga eta Joseba de la Hera.

Hizkuntza musikaleko 2B taldea: Akordeoi, txirula eta perkusioz 'Balsa' joko dute.

Akordeoi taldea: Amaia Rodriguez, Irati Badiola, Ane Arizkorreta, Janire Soraluze eta Jone Oria.

Hizkuntza musikaleko 2D taldea: Txirulaz Vivaldiren 'Udaberria' joko dute.

Gitarra taldea: Maria Gerriko, Leire Arrieta, Eneritz Zabaleta eta Maria Alustiza.

Akordeoi taldea: Jone Beldarrain, Naiara Aldanondo, Neli Ferreira eta Maider Mujika.

Hizkuntza musikaleko 2C taldea: 'Otro vaso de vino' joko dute.

Dantza taldea eta trikitixa-pandero taldea: 'Lantzeko ihauteriak' eskainiko dute.

erakusketak

BEASAIN

Martxoaren 5ean hasita, Asmuben egindako eskulanen erakusketa, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Otsailaren 27ra arte, 'Haur poesia', Barrenan.

Martxoaren 5etik 26ra arte, Manu Urangaren pintura erakusketa, Barrenan.

mendi irteera

BEASAIN:

Otsailak 29, Beasaingo Mendizaleak: Beasain-San Gregorio-Beasain.

ORDIZIA:

Otsailak 29, Ordiziako Mendizaleak: Torrano-Argiñano.

Martxoak 7, Ordiziako Mendizaleak: Lekunberri-San Migel-Uharte.

Etxebizitzak

salgai

➔ Pisua salgai Ordizia erdigunean. Eraikuntza berria. 90 m². 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea jarrita. Garaje itxia eta trastalekua aukeran. 630608227. Arratsaldetan deitu.

➔ Etxebizitza salgai Legorretan. 665706452.

erosi

➔ Etxebizitza txikia, 2 logelakoa, erosiko nuke Ormaiztegin. 629452053.

errentan hartu

➔ Bikote batek etxebizitza alokairuan hartuko luke Beasainen. 658724907. Eneko.

errentan eman

➔ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urederraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

Baserriak

erosi

➔ Goierrin baserria erosiko nuke. 656750254.

Lursailak

erosi

➔ Goierrin 4.000 - 5.000 metroko lursaila erosiko nuke. 616698236.

Garajeak

errentan eman

➔ Beasainen, garaje bikoitz itxia alokatzen da, Beasaingo Igartzako Usategi kalean. 600329197. 19:00etatik aurrera deitu.

Lokalak

errentan eman

➔ Beasainen, lokal komertziala alokatzen da. 133 m²koa. Erdigunean, banketxeen gunean. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Ibilgailuak

salgai

➔ Renault Space salgai. Gasolina. Egoera onean. Merke. 629918298.

➔ Seat Ibiza 1.2 salgai. 11 urte. 65.000 pezetan. 605768171. Olatz.

➔ Opel Corsa 1.7 D salgai. 2000 urtekoa. 65.000 kilometro. Extra guztiak. 626452230.

➔ Peugeot 205 salgai. 600 euro. 943886760.

➔ Rover 420 SDI salgai. Egoera onean. 943886760.

➔ Ford Escort 1.6 GT salgai. SS-AF. Oso merkea eta oso ondo zaindua. 943085584. Mikel.

➔ Audi S4 salgai. Egoera onean. 686492674.

➔ Karabana salgai. Egoera onean. 943806566.

➔ Opel Corsa, BTN matrikuladuna salgai. Gasolina. 943801127 - 943801269.

➔ Suzuki motorra salgai. 7.000 km dauzka. 943084044.

Animaliak

opari

➔ Txakurkume jaio berriak oparitzen ditut. 645710111.

kruzerako

➔ Pastor aleman txakurra, arra, kruzerako eskaintzen da. 677022047.

LAZKAO

Etxebizitza **unifamiliarra** eraikitzaera goaz **lorategiarekin**

943 161 032
652 775 741

ZUZENKI

AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Legorreta
Beasain
Orendain

Etxebizitzen salmenta:

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

Tel. eta Faxa:
943 886 558

Poltsikoko telefonoa:
616 698 288



Jose Agustin Jauregi

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
e.posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Bestelakoak

salgai

- ➔ Gurdi-denda salgai. 3 aldiz erabilita. 609986490 - 943331190.
- ➔ Belar bolak salgai. 943160860.
- ➔ Baserriko indaba beltza salgai. Ona, garrantia guztikoa. 9 euro kiloa. 943883410.
- ➔ Motokroseko kas-koa salgai. Nex marka-koa. Gorria. Erabili ga-bea, estreinatu gabea. 120 euro. 943027516 - 665734291.
- ➔ Etxe tresnak salgai: hozgailua edo frigorikoa, garbigailua edo labadora, berogailua, oheak, mesanotxeak, lanpara, sofak... Merkeak. Gaez deitu. 636030300.
- ➔ Snowboard ekipoa salgai. 55 zm.koko tabla, 42 zenbakiko botak, fijazio automatikoak. Shimano markakoak. 943888601. Gaez deitu.

➔ Errepideko txirrin-
dua salgai. 48 neurria.
Hiru plato eta grupo
Campagnolo.
943883895. Zacarias.

➔ Aiwa 305 errezep-
torea, dolby digital eta
dts salgai. 5 x 70 watio.
169 euro. 658724974.

➔ Salvat entziklope-
dia salgai. 943882278-
635747301.

Lana

eskaerak

➔ Ataunen etxeko la-
nak egiteko emakumea
behar da. 943180403.

➔ Beasainen pertsona
bat behar da goizez
etxeko lanak egin eta
haurrak zaintzeko.
659802645.

➔ Beasainen zerbitza-
ria behar da. Euskaldu-
na, jatorra eta lanerako
gogoia duena.
616698236.

➔ Gaintzako Kale
Txiki tabernan zerbitza-
ria behar da.
943886243.

➔ Zerbitzaria behar da
asteburuetarako. Eus-
kalduna. Esperientzia-
duna bada hobe.
943880044.

eskaintzak

➔ Kimikan lizentzia-
turiko neskak, matema-
tika, fisika eta kimikako
klase partikularrak ema-
ten ditu Beasainen eta
Olaberrian, DBH eta
DBHO mailako ikasle-
ei. 699398477.



Pottoka

KAFETEGIA


- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3 **ORDIZIA**

ATAUN

Etxebizitza **bifamiliarra**
eraikitza goaz
450 m²-ko **lorategiarekin**

☎ **943 161 032**
652 775 741



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGA




TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

IKASTEK AKADEMIA

Goierriko akademia integral bakarra.
Hezkuntzako profesionalek zuzendua.

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120 www.ikastek.net

ESKOLA LAGUNTZA	IKASKETA ARAZOAK	GOIERRI ESKOLA
✖ Gai eta maila guztiak	✖ Errendimendua	✖ Unibertsitate-maila
✖ Banakako atentzioa	✖ Irakurritakoaren ulermena	✖ Batxilergoa
✖ Talde txikiak	✖ Idazmena	✖ Moduloak
	✖ Ohiturak	



1982an jaioetako lasalletarrak

Goiko ilaran eta ezkerretik hasita: Xabier Armendariz, Maitane Antia, Joana Ramirez, Unai Baztarrika, Nerea Gurrutxaga, Marta Suarez, Aitor Martinez eta "Teresita" (Andereño edo irakaslea).

Erdiko ilaran: Aitziber Sarasola, Joseba Imaz, Ainara Irastorza, Arkaitz Gurrutxaga, Ainhoa Orthous eta Ibon Aztiria.

Beheko ilaran: Iban Urkiola, Jon Epelde, Joseba Arizmendi, Daniel Ferreiro, Xabier Mujika, Alain Martin, Iñaki Apalategi eta Mikel Urteaga.


lues rothers
BEASAIN

Aholkularitza
ASEPLAN
Abokautak - Ekonomilariak
Tel.: 943 887 129 Tel.: 943 086 420
Oriamendi 15, behea BEASAIN J.M. Iturriotz, z/g

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

txekin

Autowag, s.a.

Audi

☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km **BEASAIN**

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN



GARMENDIA

Teilak eta teilatuak

*Egur tratamenduak
autoklabean*

disetnua: acvnullimedia




TEILATUAK



ZUREZKO EGITURAK



HODIAK



EGUR TRATAMENDUAK

Mallutz Poligonoa, 25 - 26 Pab. | 20240 ORDIZIA | Tel. 943 16 10 32 | Faxe. 943 16 08 42
www.garmendiatejas.com | www.tejasgarmendia.com | garmendia@garmendiatejas.com

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK

BAINUAK

HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



suquia

sukaldeak



Zure sukalderako berrikuntza eta kalitatea

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com



Orain erakusketa aldaketagatik eskaintza interesgarriak